

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua
Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa**

**Ente Público de Derecho Privado
Osakidetza-Servicio Vasco de Salud**

2018





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 OSAKIDETZA.....	8
II.1.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	8
II.1.2 Urteko kontuei buruzko iritzia	8
II.2 OSATEK SA.....	6
II.2.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	9
II.2.2 Urteko kontuei buruzko iritzia	9
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI	
BURUZKO IRIZPENAK	10
III.1 OSAKIDETZA.....	10
III.1.1 Langileria-gastuak	10
III.1.2 Kontratazioa	10
III.1.3 Hitzarmenak.....	12
III.2 OSATEK SA.....	12
III.2.1 Langileria-gastuak	12
III.2.2 Kontratazioa	13
IV. URTEKO KONTUAK.....	14
IV.1 OSAKIDETZA.....	14
IV.2 OSATEK SA.....	20
ERANSKINAK	25
A.1 Izaera eta araudi ezargarría	25
A.2 Hornidurak eta langileen kontingentziak	26
A.3 Langileria-gastuak.....	28
A.4 Kontratazioa.....	29
A.5 OSATEK SA.....	34
ALEGAZIOAK	37



ABREVIATURAS	63
I. INTRODUCCIÓN.....	65
II. OPINIÓN.....	66
II.1 OSAKIDETZA.....	66
II.1.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	66
II.1.2 Opinión sobre las cuentas anuales	66
II.2 OSATEK, S.A.....	67
II.2.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	67
II.2.2 Opinión sobre las cuentas anuales	67
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	68
III.1 OSAKIDETZA.....	68
III.1.1 Gastos de personal.....	68
III.1.2 Contratación.....	68
III.1.3 Convenios.....	70
III.2 OSATEK, S.A.....	70
III.2.1 Gastos de personal.....	70
III.2.2 Contratación.....	71
IV. CUENTAS ANUALES	72
IV.1 OSAKIDETZA.....	72
IV.2 OSATEK, S.A.....	78
ANEXOS	83
A.1 Naturaleza y normativa aplicable.....	83
A.2 Provisiones y contingencias de personal.....	84
A.3 Gastos de personal	86
A.4 Contratación.....	87
A.5 OSATEK, S.A.....	92
ALEGACIONES	95

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 29a

Vitoria-Gasteiz, a 29 de octubre de 2020



LABURDURAK

EA	Esparru-akordioa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EASL	8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoa.
EEP	Enpleguaren Eskaintza Publikoa.
EFPL	Euskal Funtzio Publikoaren Legea.
EHJAN	Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusia.
EJ	Eusko Jaurlaritza.
EKB	Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.
EM	Erresonantzia Magnetikoa.
INSALUD	Osasuneko Institutu Nazionala.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuei buruzkoa.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duena.
TVCP/HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
UO	Unibertsitate Ospitalea.
ZEI	Zerbitzu Erakunde Integratua.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) bera arautzen duen 1/1988 Legean eta Lanerako Urteko Programan ezarritakoari jarraikiz, Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren (aurrerantzean, Osakidetza) urteko kontuen fiskalizazio txostena mamitu du, 2018ko ekitaldiari buruzkoa eta honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: ea aurrekontuaren, zorpetzearen, finantza eragiketen, langileriaren, obra, zerbitzu eta hornidura kontratazioaren, laguntza eta dirulaguntzak publikoak ematearen, eta zuzenbide publikoko sarreraren arloetan aplikagarri den araudia betetzen den aztertu da.
- Kontularitzakoak: Kontuak aplikagarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu.
- Lanean ez da jaso gastuaren efikaziari eta efizientziari buruzko analisia. Hala ere, aurkitu diren hutsak «Barne kontroleko sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak» epigrafean azaldu dira xehetasunez.

Berebat, Osatek SA ere fiskalizatu dugu, Osakidetzak kapital sozialaren % 100eko jabetza duen sozietate publikoa.

Gainera, kanpo enpresek egindako Osakidetza eta Osatek SAREN urteko kontuen eta aurrekontua eta legea betetzen dutelako auditoria txostenak euskarritzen dituzten lan paperak ere aztertu ditugu. Berebat, aplikagarria den legezko araudia bete izanari buruz Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako txostenak ere aztertu ditugu.

Fiskalizazio lanak sektore publikoari ezargarriak zaizkion auditoriako printzipio eta arauen arabera gauzatu dira eta kasu bakoitzean beharrezko iritzitako hautazko probak, prozeduren azterketa eta auditorian ohiko diren gainerako teknikak baliatu dira txostenean jasotako iritzia euskarritzeko.

Osakidetza osasun gaietan eskumena duen EAEko Administrazio Orokorreko Sailari atxikia dago; berezko lege-nortasuna du eta jarduteko gaitasun osoa du osasun zerbitzuak emateko, bere baitako diren zerbitzu erakunde publikoen bitartez, berezko lege-nortasunik ez duten arren, kudeaketarako autonomia dutenak.

2018ko abenduaren 31n, Erakunde Zentral, Larrialdi eta Transfusio eta Giza-ehunen Euskal Zentroaz gain, 13 zerbitzu erakunde integratu "ZEI", osasun mentaleko 3 zentro eta 2 ospitale daude:

- Nagusiak: Araba, Bilbo-Basurto, Donostialdea eta Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces Zerbitzu Erakunde Integratuak.
- Eskualdekoak: Barakaldo-Sestao, Barrualde-Galdakao, Bidasoa, Debarrena, Debagoiena, Goierri-Urola Garai eta Arabako Errioxa Erakunde Sanitario Integratuak; baita, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea ZEIAk.
- Egonaldi luzekoak: Gorliz, Leza (Arabako Errioxako ZEIAN) eta Santa Marina.
- Lehen mailako atentzioa: Tolosaldeko eta Uribeko ZEIA.

II. IRITZIA

II.1 OSAKIDETZA

II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Kontratazioa

1. Osakidetzako zerbitzu erakundeek kontratu txiki modura izapidetu dituzte produktu edo ondasun higigarrien erosketak, zeinetan kontratazioaren xedea zatikatu baita; horrek publikotasun eta lehia printzipioa urratzen du (SPKLTBren 86. art. eta SPKLren 118. art.). Sendagaien hornidurari dagokionez, aztertu diren 22 milioi euroren erosketetatik akats hori ikusi da 19,1 milioi euro egin duten erosketetan eta aztertu diren 64,3 milioi euroren produktu homogeneoen erosketetatik 53,8 milioi euroren erosketetan, EKBk kontratu mota hau legedia ezargarriari egokitzeari dagokionez egindako kontrol-txostenetatik ondorioztatzen denaren arabera. (Ikus A.4).
2. Esparru-akordioako espediente batean, aleko prezioetan 7,4 milioi euroan esleitutakoan (65 zk. espediente), prezio irizpidearen balorazioan, baloratu daitekeen irizpide bakarra izanik, gehieneko puntuazioa eskuratzen da eskainitako prezioa lizitaziokoa baino baxuagoa bada, eta ez dira eskaintzak sailkatzen eskainitako prezio onenaren arabera, SPKLTBren 150. artikulua aurreikusitakoaren aurka. Gainera, kontratuen geroko esleipenak eragin du ia kontratu guztiak eskaintza garestienei esleitzea, ekonomikoki egokiena den eskaintza hautatzeko printzipioak gorde gabe, hau da, gardentasuna, tratu-berdintasuna eta proportzionaltasuna, SPKLTBren 1 eta 150 artikuluek agintzen dutena urratuz, zeina berretsi eta garatu baita SPKLren 145.5 b) artikuluan.

Epaitegi honen iritzira, aurreko bi paragrafoetan zehaztu diren ez-betetzeak alde batera, Osakidetzak zuzentasunez bete du 2018ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Egoeraren balantzeak ez ditu barne hartzen Insaludetik datorren langileria estatutario sanitario ez fakultatiboaren erretiro osagarriak, ez Tuberkulosiaren kontrako Patronatuaren langileria funtzionarioarenak, ez eta 1994ko abenduaren 31 baino lehenago erretiratu zen Basurtoko Ospitaleko hainbat langilerena ere. Obligazio hauek erregistratzeko Osakidetzak kutxa irizpidea darabil nagusiki eta 2018an gastu modura ekitaldian ordaindutako 6,5 milioi euroak jaso ditu.

Ezargarria den finantza informazioko arau-esparruari jarraiki, pentsio osagarriek eta antzeko beste batzuek sortutako pasiboak azterketa aktuariaren bitartez zenbatetsi behar dira eta sortzapean printzipioaren arabera erregistratu. Osakidetzak aditu independenteek egindako azterketa aktuariala du; azterketa honek haren pasibo aktuarialak 88 milioi euroan kuantifikatu ditu 2018ko abenduaren 31n; Osakidetzak, ordea, ez du dagokion zuzkidura erregistratu (ikus A.2).



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Epaitegi honen iritzira, 1. paragrafoan adierazitako salbuespenaren ondorioak alde batera, Osakidetzaren urteko kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2018ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

II.2 OSATEK SA

II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen ustetan, Osatek SAk zuzentasunez bete du 2018ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Osateken urteko kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2018ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honek besarkatzen ditu bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

III.1 OSAKIDETZA

III.1.1 LANGILERIA-GASTUAK

2018an indarrean dauden 21 antolakundeen egiturazko plantilla guztira 26.591 lanpostuk osatzen dute. KEBek aztertu ditu 8 erakundetako 11.848 lanpostuetako 467 langile finko eta bitartekoen ordainsariak, % 3,9 egin dutenak, eta behin-behineko langile estatutarioen 61 espediente aztertu ditu. Hona hemen azaleratu diren ez-betetzeak:

- Gainditu egin da 13 espedientetan zerbitzu eginkizunetarako finkatutako 2 urteko epemuga eta 48 espedientetan maila jasoagoko egitekoetarako finkatutako urtebeteko muga. Beharrezko diren plazak sortuta egiturazko plantilla egokitzea gomendatzen da, egitekoen asignazioak ez daitezen luzatu Osakidetzako Lan baldintzen akordioetan finkatutako denbora-mugaz haratago, eta betetzea EFPLk zerbitzu-eginkizunen iraupenerako finkatutako denbora.
- Aldi baterako osagarriei dagozkien arautegi berariazkoak badiren arren, hala nola, mediku zaintzak, maila jasoagoko egitekoak, txandak, gaueko txandak, jaiegunak eta kokalekua, autokontzertazioa eta abar, oro har, arauak hausten jarraitzen da, egiaz gauzatutako zerbitzuen egiaztatzea egiten ez delako eta zerbitzu horiek ez dituelako organo eskudunak onartzen. Giza baliabideen aplikazio informatikoan langile-espediente bakoitzeko beharrezko informazio justifikagarri guztia erregistratzea gomendatzen da, langile bakoitzaren egiazko egoera gaurkotuaren arabera datuak egiaztatzeke bide emango duena.
- Nominak berrikustean ikusi da egitekoak bete direla dagokion plantilla funtzionalean era horretan ageri ez diren lanpostuetan, edo Entearen lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan. Plantilla funtzionalak -urtero onartzen baitira- langileen egoera eta funtzio egiazkoetara egokitzea gomendatzen da, 186/2005 Dekretuan aurreikusitako lanpostuak aintzat hartuta, eta behar berrietara gaurkotzea.

III.1.2 KONTRATAZIOA

Aztertutako espedienteetan (ikus A.4) honako gorabehera hauek azaleratu dira:

- 15 espedientetan, 10 hornidurakok, 4 zerbitzukoak eta 1 obretakoak, 47,6 milioi euroan esleitutakoetan (77, 78, 79, 80, 81, 83, 84, 85, 87, 88, 91, 92, 96, 98 eta 99 zk. espedienteak), ez da justifikatzen lizitazioko oinarriko aurrekontua merkatuko prezioetara egokitzen dela, eta ez dira kostuak eta bestelako gastuak xehakatzen; ez eta, kasua denean, soldatak ere, SPKLren 100.2 artikulua agintzen duen moduan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Guztira 5,3 milioi euroan esleitutako 5 espedientetan, 3 zerbitzukoak eta 2 hornidurakoak (83, 87, 91, 98 eta 99 zk. espedienteak) ez da jaso prezio irizpidea balioztatzeko baliatutako formularen justifikazioa, SPKLren 146.2 artikuluan aurreikusitakoaren aurka.
- Milioi 1 euroan esleitutako zerbitzuko espediente 1ean (99 zk. espedienteak), loteka lizita daitekeenean, ez da jaso lotetan ez banatu izanaren justifikazioa, SPKLren 99.3 artikulua agintzen duen moduan.
- Guztira 1,6 milioi euroan esleitutako hornidurako espediente batean (98 zk. espedienteak), balio-judizioa eskatzen duten eskaintzen balorazio-irizpideak ebaluatzeko adituen batzordean kontratua proposatu duen ataleko kideak bidegabeki barne hartu dira (SPKLren 146.2 artikulua).
- Guztira 6,4 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 5 espedientetan (85, 98, 99, 100 eta 101 espedienteak) -2 zerbitzukoak eta 3 hornidurakoak- prezioaren irizpidea puntuatzeko baliatzen den formulak puntuak ziurtatzen ditu eskaintzak lizitazio tipoa berdintzen duenean; horrek, baina, irizpide hau desitxuratzen du eta eragina du balio-judizio bidezko irizpideekin baloratu beharreko ehunekoen proportzioan (SPKLren 150. eta SPKLren 145. artikulua).
- 7 espedientetan (56, 67, 76, 77, 82, 86 eta 87 espedienteak) -1 obrakoa, 2 zerbitzukoak eta 4 hornidurakoak- 21 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoetan, eskaintza ekonomikoen balorazioan mugak edo atalaseak ezarri dira eta horietatik gora merkatze gehigarriak aurkezteari sustagarria kentzen diote, eskaintza onuragarriagoa hautatzea baldintzatuz.
- 1,6 milioi euroan esleitutako hornidurako espediente 1ean (98 zk. espedienteak) pleguek ez dute zehazten zein elementu edo baldintzen gainean aurkez daitezkeen aldaerak, SPKLren 142.1 artikulua aurreikusitakoaren aurka.
- Guztira 17,2 milioi euroan esleitutako zerbitzuko 2 espedientetan (95 eta 100 espedienteak) aurreikusitako aldaketek ez dituzte baldintzak betetzen, muga kuantitatiboarena izan ezik, hau da, modu argi, zehatz, zalantzarik gabe aurreikusgarriak, zehaztapenez eta objektiboki egiaztagarriak izateko baldintzak, SPKLren 106. eta SPKLren 204. artikuluen arabera, hurrenez hurren.
- Guztira 11 milioi euroan esleitutako hornidurako 2 espedientetan (74 eta 75 espedienteak) Esparru-akordioaren kontratuaren iraupenak gainditu egin du SPKLren 196 artikuluan finkatutako muga.
- Guztira 2,9 milioi euroan esleitutako hornidurako 2 espedientetan (98 eta 101 espedienteak), txosten teknikoak ez ditu behar bezala arrazoitzen emandako puntuazioak, SPKLren 151.1 eta SPKLren 151.1 eta 157.5 artikuluetan, hurrenez hurren, aurreikusitakoaren arabera. Berebat, txosten horri aipamen egiten dion jakinarazpenaren ebazpena ez da nahikoa, SPKLren 151.4 eta SPKLren 151.2 artikuluetan xedatutakoaren arabera.
- 2018an 4 ZEIk Gizarte Zerbitzuen Foru Sozietate batekin indarrean zizuten mandatuen ikuztegi eta arropa zuria garbitzeko zerbitzua emateko, berezko baliabide izateagatik, ez



ziratekeen formalizatu behar, data horretan artean ez zutelako Osakidetzako berezko baliabide izaerarik. 2018an egikaritutako zenbatekoa 1,8 milioi eurorena izan da.

III.1.3 HITZARMENAK

Onkologikoa Fundazioak zerbitzu sanitarioak emateko izenpetutako atxikimendu-hitzarmena Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailarekin izenpetutako kontratu-programaren bitartez gauzatu zen eta hasieran 3 urteko aldirako eta tazituki urtebetez luzatzeko aukerarekin, edukia alde aurretik ebaluatu ostean; hitzarmen honek bete egiten du irailaren 4ko 127/2018 Dekretuaren 6.2 artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen (SPAJL) 49.h) 1. artikuluan xedatutakoa. Nolanahi den ere, hitzarmenean barne hartzea gomendatzen da aurrez aipatutako legearen 49.h) 2. artikuluan aurreikusitakoa, 4. urtetik aurrera hitzarmenaren iraupenari dagokionez.

Gainera, gomendagarria litzateke aldeetako bakoitzak bere gain hartutako obligazio eta konpromisoak bete ezean ezargarriak diren ondorioei buruzko klausula bat gehitzea eta, kasua balitz, horretatik eratorritako balizko kalte-ordaina zehazteko irizpideak, SPAJLren 49 e) artikuluan xedatutakoaren arabera.

III.2 OSATEK SA

III.2.1 LANGILERIA-GASTUAK

Ordainsariak

- Produktibitate-osagarriaren kontzeptuak 2018an 3,8 milioi euroren gastua eragin du, hau da, soldata eta ordainsarien zenbatekoaren % 31,14. Miaketa informatuen kopurua, zeinetatik aurrera osagarria jasotzen duten, 1.599 izan da erradiologoek kasuan eta 10 txandako gainerako langileria zuzenari dagokionez, eta ez da 2001az geroztik gaurkotu, baliatutako ekipoak prestazio eta eraginkortasun handiagokoak izan arren; ezaugarri hau aintzat hartu beharrekoa da, 2001ean onartutako ordainsarien sisteman arautu zen moduan.

2018an eta 2017an erradiologoek miaketa informatuen kopurua batez bestean 2.971ekoa izan da eta gainerako langileria zuzenarena 18 txanda bakoitzeko; honenbestez, aurrez aipatutako zifrak gaurkotzea gomendatzen dugu eta produktibitate-pizgarriaren kalkulua egiazko batez besteko zifretara doitzea.

- 2018an ordaindutako ordainsariei dagokienez, aurreko fiskalizazio-txostenetan azaleratu genituen zuzendu beharrekoek bere horretan diraute: lurraldeko arduradunei gainerako erradiologoek aldean miaketa bakoitzeko ordaindutako zenbatekoan dagoen aldea, erradiologo baten oinarritzko soldata hitzarmeneko tauletara ez egokitzea eta teknikariei oinarritzko soldataren % 2ren urteko ekoizpen osagarria ordainsari finko modura ordaintzea; horrek praktikan indarreko ordainsari tauletan finkatutako ordainsaria gainditzen duen kopurua jasotzea dakar.
- Osatek SAren hitzarmenak "Antzinasun" kontzeptuan izaera kualitatibo eta kuantitabo aldetik hobekuntzak jasotzen ditu; baita zenbait plusetan ere, EAEko Administrazio



orokor eta erakundeen administrazioari, eta Osakidetzari zehazki, ezargarria zaionarekiko. Gomendagarria litzateke ahal den neurrian nominako kontzeptuak berdindu eta gaurkotzea eta oro har, indarreko Hitzarmenaren baldintzak, 2007an izenpetutakoa baita.

Aldi baterako kontratuen altak

- Aztertutako 32 kontratuetatik, erradiologoek 2tan soilik baloratu dira sozietatean jasotako curriculumak, eta administrazioko ofizial bat hautatzeko, Lanbidek bidalitako izangaiekin 2015ean osatutako lan-poltsa bat baliatu da; kasu bietan, hautaketa-prozesuak mugatu egiten du lehia. Aurreikusitako urteko hautaketa-prozesuei publikotasuna ematea gomendatzen da, beharrezkoa balitz Osakidetzaren Enplegu Publikoko Eskaintzako zerrendak baliatuaz.
- Bestetik, badira 2018ko abenduaren 31n produkzioaren gorabeheren ondorioz luzatu diren aldi baterako kontratuak eta horiek desitxuratu egiten dute hasierako kontratu mota. Gainera, aldi baterako kontratuak kateatzea lotura mugagabe ez finko bihur daiteke, harik eta lanpostua arauz betetzen den arte. Txosten hau idatzi dugun datan gauzatzeke dago 2018ko aurrekontuan onartutako egiturazko plantilla betetzeko deialdia.

III.2.2 KONTRATAZIOA

- 2017an bezala, guztira 67.009 euro egin duten 3 aseguru poliza kontratatzeke ez da espedienterik lizitatu eta kontratu txiki modura izapidetu dira; loten arabera lizitatu zitezkeen, baina.
- Kontratu txiki modura izapidetu dira Eibar eta Donostian Erresonantzia Magnetikoa jartzeko 2 proiektu, 2018ko apirilaren 22ko Administrazioako Kontseiluan onartutakoak, SPKLren 118.3 artikuluan aurreikusitakoa urratuz, izan ere lizitatzailerari berari esleitu zaizkio eta gainditu egin dute batera artikuluko horrek ezartzen duen 15.000 euroren muga.

**IV. URTEKO KONTUAK****IV.1 OSAKIDETZA**

EGOERAREN BALANTZEAK ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

AKTIBOA	2018	2017
AKTIBO EZ ARRUNTA	1.002.147	966.974
Ibilgetu ukiezina.....	8.803	7.552
Aplikazio informatikoak.....	8.803	7.552
Ibilgetu materiala.....	987.936	954.049
Lursailak eta eraikuntzak.....	831.802	820.019
Instalakuntza teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala.....	118.758	101.434
Abian dagoen ibilgetua eta aurrerakinak.....	37.376	32.596
Taldeko eta epe luzera elkartutako enpresetan inbertsioak.....	4.352	4.352
Ondare baliabideak.....	4.352	4.352
Epe luzeko finantza-inbertsioak.....	1.056	1.021
Hirugarrenei kredituak.....	1.056	1.021
AKTIBO ARRUNTA	380.093	337.053
Izakinak.....	48.825	45.098
Botikako produktuak.....	23.323	20.514
Kontsumoko osasun materiala.....	23.088	21.817
Bestelako hornidurak.....	2.414	2.767
Merkataritzako zordunak eta kobr. beste knt. b.	198.485	214.550
Salmenta eta zerbitzuak emateagatiko bezeroak.....	4.464	5.359
Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak.....	191.157	205.583
Askotariko zordunak.....	754	1.063
Langileria.....	1.909	2.226
Administrazio publikoekin beste kreditu batzuk.....	201	319
Epe motzeko finantza inbertsioak.....	620	549
Bestelako aktibo finantzarioak.....	620	549
Aldizkatzeak epe motzera.....	711	1.084
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk.....	131.452	75.772
Diruzaintza.....	9.641	2.532
Beste aktibo likido baliokide batzuk.....	121.811	73.240
AKTIBOA, GUZTIRA	1.382.240	1.304.027



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEAK ABENDUAREN 31N		Euroak milakotan	
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA		2018	2017
ONDARE GARBIA		896.537	994.561
FUNTS PROPIOAK		18.490	18.490
Funts soziala	18.490		18.490
Aurreko ekitaldien emaitzak.....		18.933	18.836
Geldikina	18.933		18.836
Ekitaldiaren emaitza		(134.357)	97
JASOTAKO DIRULAGUNTZA, DOHAINTZA ETA LEGATUAK		993.471	957.138
PASIBO EZ-ARRUNTA		12.039	13.677
Epe luzeko hornidurak		2.395	3.113
Bestelako hornidurak	2.395		3.113
Epe luzeko zorrak		9.644	10.564
Beste finantza pasibo batzuk	9.644		10.564
PASIBO ARRUNTA		473.664	295.789
Epe motzeko zorrak		57.347	39.797
Beste finantza pasibo batzuk	57.347		39.797
Merkat. hartzekod. eta kobratz. beste knt. b.		416.067	255.747
Hornitzaileak	115.555		111.183
Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartutakoak	10.467		2.812
Askotariko hartzekodunak	2.091		2.354
Langileria	125.668		4.756
Bestelako zorrak administrazio publikoekin	162.286		134.642
Aldizkatzeak epe motzera		250	245
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA		1.382.240	1.304.027



GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAK ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	2018	2017
ERAGIKETA JARRAITUAK		
Negoio zifraren zenbateko garbia.....	2.768.086	2.703.823
Zerbitzu-emakida.....	2.768.086	2.703.823
Hornikuntzak.....	(733.469)	(703.974)
Botika produktuen kontsumoa.....	(292.397)	(282.135)
Osasun materialaren kontsumoa.....	(285.696)	(274.769)
Beste hornikuntza batzuen kontsumoa.....	(24.463)	(24.054)
Kanpoko beste gastu batzuk.....	(130.824)	(123.163)
Lehengaien eta bestelako horniduren narriadura.....	(89)	147
Ustiapeneko bestelako sarrerak.....	28.232	26.590
Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk.....	26.739	24.943
Ekitaldiaren emaitzara txertatutako ustiapeneko dirulaguntzak.....	1.493	1.647
Langileria-gastuak.....	(2.016.625)	(1.858.537)
Soldatak, lansariak eta antzekoak.....	(1.605.571)	(1.478.978)
Gizarte kargak.....	(411.054)	(379.559)
Ustiapeneko beste gastu batzuk.....	(180.324)	(167.404)
Kanpoko zerbitzuak.....	(166.811)	(157.445)
Zergak.....	(626)	(495)
Merkat. eragiketengatik galerak, narriad. eta hornig. bariozioa.....	(3.727)	(3.275)
Beste kudeaketa-gastu arrunt batzuk.....	(9.160)	(6.189)
Ibilgetua amortizatzea.....	(47.954)	(49.431)
Ibilgetu ez finantzarioko dirulaguntzak egoztea eta beste.....	47.978	50.187
Ibilgetua besterenganatzeagatiko narriadura eta emaitza.....	(50)	(807)
USTIAPENAREN EMAITZA	(134.126)	447
Balio negoziagarri eta bestelako finantza baliabideen sarrera finan.	5	5
Hirugarrenetikozorreatatik finantza gastuak.....	(235)	(354)
Trukaneurri aldeak.....	(1)	(1)
EMAITZA FINANTZARIOA	(231)	(350)
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(134.357)	97
ERAG. JARRAITUETATIK ERATORRITAKO EKITALDIAREN EMAITZA	(134.357)	97
EKITALDIAREN EMAITZA	(134.357)	97



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

	Euroak milakotan	
	2018	2017
SARRERA ETA GASTU AITORTUEN EGOERA		
GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA	(134.357)	97
ONDARE GARBIAIN ZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK		
Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak	84.311	62.480
ONDARE GARBIAIN ZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK GUZTIRA	84.311	62.480
GALERA ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA		
Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak	(47.978)	(50.187)
GALERA ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA	(47.978)	(50.187)
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	(98.024)	12.390

	Euroak milakotan				
	JASOT. DIRU-LAG.				
	FUNTS SOZIALA	GELDIKINA	EKIT. EMAIT.	DOHAINT. ETA LEGAT.	GUZTIRA
2016KO EKIT. AZKEN SALDOA	18.490	26.724	210	944.846	990.270
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira	-	-	97	12.292	12.389
Funts sozialera ekarpena	-	210	(210)	-	-
Ondare garbiaren bestel. aldaketak	-	(8.098)	-	-	(8.098)
2017KO EKIT. AZKEN SALDOA	18.490	18.836	97	957.138	994.561
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira	-	-	(134.357)	36.333	(98.024)
Ondare garbiaren bestel. aldaketak	-	97	(97)	-	-
2018KO EKIT. AZKEN SALDOA	18.490	18.933	(134.357)	993.471	896.537



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	2018		2017
USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	37.353		(27.807)
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	(134.357)		97
Emaitzari doikuntzak.....	3.664		4.276
Ibilgetua amortizatzea	47.954	49.431	
Narriaduragatiko balorazio-zuzenketak	3.816	3.128	
Zuzkiduren aldaketa	1.084	2.394	
Diru-laguntzak egozteak.....	(49.470)	(51.834)	
Baja eta besterenganatzeengatik emaitzak.....	49	807	
Sarrera finantzarioak.....	(5)	(5)	
Gastu finantzarioak	235	354	
Trukaneurri aldeak.....	1	1	
Kapital arruntean aldaketak	168.318		(31.893)
Izakinak	(3.816)	5.722	
Zordunak eta kobratz. beste knt. b.	12.585	(30.544)	
Beste aktibo arrunt batzuk	373	(167)	
Hartzekod. eta ordaintz. bst kontu batz.	39.407	(7.066)	
Beste pasibo arrunt batzuk	121.571	958	
Arruntak ez diren beste pasibo batzuk	(1.802)	(796)	
Ustiapen jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk.....	(272)		(287)
Interesen ordainketak	(277)	(292)	
Interesen kobrantzak	5	5	
INBERTSIO JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(65.925)		(54.841)
Ordainketak inbertsioengatik	(67.345)		(56.511)
Ibilgetu ukiezina/materiala	(65.833)	(55.064)	
Bestelako aktibo finantzarioak	(1.512)	(1.447)	
Desinbertsioengatik kobrantzak	1.420		1.670
Bestelako aktibo finantzarioak	1.420	1.670	
FINANTZAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK	84.253		53.294
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak.....	85.348		54.183
Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak.....	85.348	54.183	
Finantza pasiboaren tresnengatik kobrantzak eta ordainketak.....	(1.095)		(889)
Beste zor batzuen itzulera eta amortizazioa	(1.095)	(889)	
TRUKE TIPOEN BARIAZIOEN ONDORIOA)	(1)		(1)
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA	55.680		(29.355)
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	75.772		105.127
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	131.452		75.772



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KAPITAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2018KO ABENDUAREN 31N (*)

Euroak milakotan

INBERTSIOAK/FINANTZAKETA	AURREKONTUA					ALDEA	%
	HASIERAKOA	ALDAK.	EGUNGOA	GAUZATUA			
Inb. ukiezin, material, onib. eta besteen igoera	67.572	23.724	91.296	83.141	(8.155)	% 91	
Ibilgetu ukiezina	3.991	6	3.997	4.076	79	% 102	
Ibilgetu materiala.....	63.581	23.718	87.299	79.065	(8.234)	% 91	
Finant. inber. igoera eta ondare baliab. jaits.....	3.475	-	3.475	1.512	(1.963)	% 44	
Finan. pasibo baliabid. jaitsiera (itzulketa eta amort.)..	-	-	-	1.095	1.095	-	
Truke tipoen bariazioen ondorioa.....	-	-	-	1	1	-	
Eskudiru edo baliokideen igoera garbia.....	-	-	-	55.680	55.680	-	
INBERTSIOAK GUZTIRA	71.047	23.724	94.771	141.429	46.658	% 149	
Ustiapen jardueren eskudir. fluxu positiboak	-	-	-	37.790	37.790	-	
Transf., dirulag., dohaint. eta jasot. legat.	67.572	23.723	91.295	84.311	(6.984)	% 92	
Ondare baliab. igoera eta finantza inberts. jaits.....	3.475	-	3.475	1.420	(2.055)	% 41	
Pasibo finantz. baliabideen igoera.....	-	-	-	17.907	17.907	-	
Eskudiru edo baliokideen murrizketa garbia	-	1	1	-	-	-	
FINANTZAKETA GUZTIRA	71.047	23.724	94.771	141.429	46.658	% 149	

USTIAPEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2018KO ABENDUAREN 31N (*)

Euroak milakotan

GASTUAK	AURREKONTUA					ALDEA	%
	HASIERAKOA	ALDAK.	EGUNGOA	GAUZATUA			
Langileria-gastuak	1.884.539	6.552	1.891.091	2.016.625	125.534	% 107	
Soldatak, lansariak eta antzekoak.....	1.487.238	2.512	1.489.750	1.605.571	115.821	% 108	
Gizarte zamak eta beste.....	397.301	4.040	401.341	411.054	9.713	% 102	
Funtzionamendu-gastuak.....	893.362	5.190	898.552	910.438	11.886	% 101	
Hornikuntzak	728.546	2.000	730.546	739.171	8.625	% 101	
Kanpoko zerbitzuak.....	163.908	3.190	167.098	166.811	(286)	% 99	
Zergak	499	-	499	626	127	% 125	
Beste kudeaketa-gastu arrunt batzuk	409	-	409	3.830	3.421	% 936	
Gastu finantzarioak.....	137	-	137	236	99	% 172	
Erak. emateko dirulag. eta egin beharreko transf.	6.936	-	6.936	5.330	(1.606)	% 77	
Ordaintz. ktu. igoera eta kobratz. knt. jaitsiera garbi	-	-	-	37.790	37.790	-	
GASTUAK GUZTIRA	2.784.974	11.742	2.796.716	2.970.419	173.703	% 106	
DIRU-SARRERAK							
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	2.753.122	11.742	2.764.864	2.768.086	3.222	% 100	
Ustiapeneko bestelako sarrerak.....	30.430	-	30.430	27.995	(2.434)	% 92	
Transferentziak eta ustiap. dirulaguntzak	1.422	-	1.422	1.493	70	% 105	
Sarrera finantzarioak.....	-	-	-	5	5	-	
Ordaintz. ktu. igoera eta kobratz. knt. jaitsiera garbi..	-	-	-	172.840	172.840	-	
SARRERAK GUZTIRA	2.784.974	11.742	2.796.716	2.970.419	173.703	% 106	

(*) Honekin baterako kapital aurrekontuaren aurkezpenak Ekonomia Kontrolerako Bulegoak 2/2018 Zirkularren II. Eranskinean ezarritako eredia baliatu du. Gauzatutako kopurua Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailaren G67 aplikaziotik eskuratzen da, onartutako urteko Kontuez bestelako kontuen multzokatzeak egiten dituen.

ETORKIZUNeko KONPROMISOEN EGIKARITZA 2018KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	GUZTIRA			
	2019	2020	2021	GAINERAKOA
EGUNGO AURREKONTUA	65.512	58.625	6.887	-
Lotua	42.566	32.582	9.984	-
Egiteke	22.946	26.043	(3.097)	-



IV.2 OSATEK SA

EGOERAREN BALANTZEAK ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	2018	2017
AKTIBOA	2018	2017
AKTIBO EZ ARRUNTA	9.299	7.091
Ibilgetu ukiezina.....	29	33
Aplikazio informatikoak.....	29	33
Ibilgetu materiala.....	9.257	7.040
Eraikuntzak.....	744	763
Instalak. teknikoak, makineria, tresneria, ibilg. eta best. ibilg. materiala	8.513	6.277
Epe luzeko finantza-inbertsioak.....	13	18
Hirugarrenei kredituak.....	13	18
AKTIBO ARRUNTA	9.619	8.643
Izakinak.....	-	1
Hornitzaileei aurrerakinak.....	-	1
Merkataritzako zordunak eta kobr. beste knt. b.....	3.303	4.541
Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak.....	16	12
Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak.....	3.269	4.507
Langileria.....	18	22
Aldizkatzeak epe motzera.....	-	828
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk.....	6.316	3.273
Diruzaintza.....	6.316	3.273
AKTIBOA, GUZTIRA	18.918	15.734

Euroak milakotan

	2018	2017
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2018	2017
ONDARE GARBIA	10.951	9.967
FUNTS PROPIOAK.....	9.019	8.934
Kapitala.....	3.123	3.123
Erreserbak.....	5.811	5.729
Legezko eta estatutarioak.....	672	672
Beste erreserba batzuk.....	5.139	5.057
Ekitaldiaren emaitza.....	85	82
JASOTAKO DIRULAGUNTZA, DOHAINTZA ETA LEGATUAK.....	1.932	1.033
PASIBO EZ-ARRUNTA	679	401
Gerorat. zergarengatiko pasiboak.....	679	401
PASIBO ARRUNTA	7.288	5.366
Epe laburreko zorra.....	2.492	1.683
Merkat. hartzekod. eta kobratz. beste knt. b.....	4.796	3.683
Hornitzaileak.....	1.197	38
Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartutakoak.....	874	854
Askotariko hartzekodunak.....	102	808
Langileria (ordaintzeko dauden ordainsariak).....	949	889
Bestelako zorrak administrazio publikoekin.....	787	648
Bezeroei aurrerakinak.....	887	446
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	18.918	15.734



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	2018	2017
ERAGIKETA JARRAITUAK		
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	25.252	25.576
Zerbitzu ematea.....	25.252	25.576
Hornikuntzak.....	(714)	(710)
Lehengaien eta bestelako material ahikorren kontsumoa.....	(714)	(710)
Ustiapeneko bestelako sarrerak.....	7	52
Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk.....	7	52
Langileria-gastuak.....	(14.992)	(14.088)
Soldatak, lansariak eta antzekoak.....	(12.496)	(11.742)
Gizarte kargak.....	(2.496)	(2.346)
Ustiapeneko beste gastu batzuk.....	(8.154)	(9.508)
Kanpoko zerbitzuak eta kudeaketa arrunteko bestelako gastuak.	(8.137)	(9.490)
Zergak.....	(17)	(18)
Ibilgetua amortizatzea.....	(1.553)	(1.499)
Ibilgetu ez finantzarioko dirulaguntzak egozte eta beste.....	223	232
Beste emaitza batzuk.....	23	35
USTIAPENAREN EMAITZA	92	90
Gastu finantzarioak.....	(7)	(8)
EMAITZA FINANTZARIOA	(7)	(8)
EMAITZA ZERGA AURRETIK	85	82
ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKO EKITALDIAREN EMAITZA	85	82
EKITALDIAREN EMAITZA	85	82



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

SARRERA ETA GASTU AITORTUEN EGOERA	Euroak milakotan	
	2018	2017
GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA	85	82
ONDARE GARBIAZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK GUZTIRA	1.065	-
JASOTAKO DIRULAGUNTZA, DOHAINTZA ETA LEGATUAK	1.400	-
Zerga aldatetaren erregistroagatik dirulaguntzak	29	-
Zerga ondorioa	(364)	-
GALERA ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA	(165)	(166)
Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak	(223)	(231)
Zerga ondorioa	58	65
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	985	(84)

ONDARE GARBIAZUZENEAN ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA, ABENDUAREN 31N	Euroak milakotan				
	ESKRITURAN JASO- TAKOKAPITALA	ERRESERB.	EKITALD. EMAITZA	DIRU-LAG., DOHAINT ETA BESTE	GUZTIRA
2016KO URTEAREN AZKEN SALDOA	3.123	5.660	69	1.199	10.051
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira	-	-	82	(166)	(84)
Ondare garbiaren bestel. aldatetak	-	69	(69)	-	-
2017KO URTEAREN AZKEN SALDOA	3.123	5.729	82	1.033	9.967
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira	-	-	85	899	984
Ondare garbiaren bestel. aldatetak	-	82	(82)	-	-
2018KO URTEAREN AZKEN SALDOA	3.123	5.811	85	1.932	10.951



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	2018	2017
USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	5.409	2.101
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	85	82
Emaitzaren doiketak	1.337	1.275
Ibilgetua amortizatzea	1.553	1.499
Dirulaguntzak egozteak.....	(223)	(232)
Gastu finantzarioak	7	8
Kapital arruntean aldaketak	3.994	752
Izakinak	2	(1)
Zordunak eta kobratz. bste knt. b.....	1.238	(1.228)
Beste aktibo arrunt batzuk.....	828	(172)
Hartzekod. eta ordaintz. bst kontu batz.....	1.113	571
Beste pasibo arrunt batzuk	808	1.590
Beste aktibo eta pasibo ez arrunt batzuk.....	5	(8)
Ustiapen jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk.....	(7)	(8)
Interesen ordainketak	(7)	(8)
INBERTSIO JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(3.766)	(1.719)
Ordainketak inbertsioengatik	(3.766)	(1.719)
Ibilgetu ukiezina	(9)	-
Ibilgetu materiala.....	(3.757)	(1.719)
FINANTZAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK	1.400	-
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak	1.400	-
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA	3.043	382
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	3.273	2.891
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	6.316	3.273



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KAPITAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2018KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

INBERTSIOAK	AURREKONTUA			GAUZATUA	ALDEA	%
	HASIERAKOA	ALDAK.	EGUNGOA			
Inb. ukiezin, material, onib. eta besteen igoera	3.906	-	3.906	3.766	(140)	% 96
Ibilgetu ukiezina	-	-	-	9	9	-
Ibilgetu materiala.....	3.906	-	3.906	3.757	(149)	% 96
Eskudiru edo baliokideen igoera garbia.....	-	-	-	3.043	3.043	-
INBERTSIOAK GUZTIRA	3.906	-	3.906	6.809	2.903	% 174
Ustiaketa jardueren eskudir. fluxu positiboak	2.506	-	2.506	5.409	2.903	% 216
Jasotzeko transferentziak, dirulag., dohaintzak eta legatuak	1.400	-	1.400	1.400	-	% 100
FINANTZAKETA GUZTIRA	3.906	-	3.906	6.809	2.903	% 174

USTIAPEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2018-KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

GASTUAK	AURREKONTUA			GAUZATUA	ALDEA	%
	HASIERAKOA	ALDAK.	EGUNGOA			
LANGILERIA-GASTUAK	17.132	-	17.132	14.992	(2.140)	% 88
Soldatak, lansariak eta antzekoak	14.808	-	14.808	12.496	(2.312)	% 84
Gizarte kargak eta beste	2.324	-	2.324	2.496	172	% 107
FUNTZIONAMENDU-GASTUAK	8.716	-	8.716	8.869	153	% 102
Hornikuntzak	771	-	771	714	(57)	% 93
Kanpoko zerbitzuak	7.925	-	7.925	8.138	213	% 103
Zergak	20	-	20	17	(3)	% 85
FINANTZA GASTUAK	8	-	8	7	(1)	% 88
USTIAK. JARD. ESKUDIR. FLUXU POSITIBOAK	2.506	-	2.506	5.409	2.903	% 216
GASTUAK GUZTIRA	28.362	-	28.362	29.277	915	% 103

DIRU-SARRERAK

NEGOZIO ZIFRAREN ZENBAT. GARBIA	28.149	-	28.149	25.252	(2.897)	% 90
USTIAPENENKO BESTELAKO SARRERAK	213	-	213	31	(182)	% 14
ORDAIN. KNTUEN IGOERA, KOBRATZEKOEN MURR.	-	-	-	3.994	3.994	-
SARRERAK GUZTIRA	28.362	-	28.362	29.277	915	% 103

ETORKIZUNEN KOMPROMISOEN EGIKARITZA 2018KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	GUZTIRA	2019	2020	2021	GAINERAK.
EGUNGO AURREKONTUA	-	-	-	-	-
Lotua	-	-	-	-	-
Egiteke	-	-	-	-	-



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ERANSKINAK

A.1 IZAERA ETA ARAUDI EZARGARRIA

Osakidetza ekainaren 26ko 8/1997 Legeak sortu zuen, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarenak, osasun gaietan eskumena duen EAeko Osasun Sailari atxikitako zuzenbide pribatuko Ente publiko modura; nortasun juridiko propioa du eta jarduteko gaitasun erabatekoa duen helburua betetzeko: mendeko dituen zerbitzuetako erakunde publikoen bitartez osasun zerbitzuak hornitzea.

Zuzendaritza-organo ditu administrazio-kontseilua eta lehendakaria, Osasun Saileko sailburuak betetzen duena.

Egiturari dagokionez, 2018an Osakidetza bere 21 zerbitzu erakundeez baliatu da funtzionamendurako, Osatek SA salbuetsita, zeinek jarduera autonomia ekonomiko finantzario eta kudeaketakoaren printzipioaren arabera garatzen baitute; honenbestez, erakunde hauetako bakoitzak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin nork bere kontratu-programa izenpetzeko gaitasuna du. Kontratu-programek izaera bereziko hitzarmenaren izate juridikoa dute eta horietan mugarrizko dira, besteak beste, erakundeek eskaintzen dituzten osasun zerbitzuetan jardueraren osotasunezko bolumenaren balioespina, eskagarri den kalitate mailarekin batera eta dagokion ordain ekonomikoa.

2011ko urriaren 3ko Erabaki bitartez, Osakidetzako Administrazio-kontseiluak antolakuntza-molde berri bat abiarazi zuen Zerbitzu Erakunde Integratuak “ZEI” sortuta, lehen mailako arreta eta arreta espezializatua barne, baliabideen kudeaketan eraginkortasuna hobetu eta laguntza prozesuei jarraipena emateko. 2018an ez da beste zerbitzu-erakunderik sortu.

Finantziazio-iturria, nagusiki, EAeko Aurrekontu Orokorren kontura Osasun Sailarekin urtero izenpetzen den kontratu-programatik dator, Enteko inbertsioak finantzatzeko kapitalezko dirulaguntzekin batera. Jarduera gauzatzeko Osakidetzak EAeren jabetzako ondasun eta eskubideak ditu atxikiak edota Estatuko Gizarte Segurantzarenak.

Osakidetzaren jardueraren gaineko finantza kontrol iraunkorra Ekonomia Kontrolerako Bulegoak gauzatzen du.

2018ko ekitaldian Osakidetzari ezargarria zaion arautegiaren baitan, aipatzekoa da:

- 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoa.
- 255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren estatutu sozialak finkatzen dituena.
- 55/2003 Legea, abenduaren 16koa, Osasun Zerbitzuetako estatutupeko langileen Estatutu Markoa onartzen duena.
- 186/2005 Dekretua, uztailaren 19koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituena.
- 235/2007 Dekretua, abenduaren 18koa, Osakidetzako langileen lan baldintzak arautzen dituen Erabakia onartzen duena, 2007, 2008 eta 2009 urteetarako, 2018an indarrean dagoena.



- 1996ko abenduaren 23ko Agindua, Kontabilitate Plan Orokorra Osasun Laguntzako Enpresetara egokitzeko arauak onartzen dituena.
- 1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontabilitate Plan Orokorra onartzen duena; 1159/2010 Errege Dekretua, irailaren 17koa, aldarazten duena eta 602/2016 Errege Dekretua, abenduaren 2koa, biak aldarazten dituena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu araubidearen gaitan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartu eta EAEn Fundazio eta Partzuergoei ezargarria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
- 5/2017 Legea, abenduaren 22koa, 2018ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorra onartzen dituena.
- 116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, EAEn sektore publikoko kontratazioaren araubideari buruzkoa.
- 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzeko dena.
- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, partzialki garatzen duena, Zerbitzu Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, 2018ko martxoaren 9az geroztik indarrean, hamaseigarren azken xedapeneko salbuespenak izan ezik.

Osakidetzaren urteko kontuak formulatu dira 1514/2007 Errege Dekretuak, azaroaren 16koak, onartutako Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritakoari jarraikiz; egoeraren balantzea eta galera eta irabazien kontuak eskuratzen dira zerbitzu-erakundeen finantza egoerak gehitzeko prozesuaren ondorioz.

Osakidetzak nahiz Osatek SAren kapital sozialaren % 100 duen, ez ditu urteko kontu bateratuak aurkezten, nahiz kontu bateratu horien isla zuzena ez litzatekeen nabarmen aldatuko Osakidetzak eta Osatek SAK norik bere aldetik aurkezten dituen urteko kontuekin alderatuz gero.

A.2 HORNIDURAK ETA LANGILEEN KONTINGENTZIAK

Pentsioetarako zuzkidurak

Osakidetzaren obligazioak pentsio gaitan honako hauek dira:

- Pentsioen osagarriak.
 - Insalud-etik eskualdatutako osasun langile estatutario ez fakultatiboak, zegokionean erretiroa eskatu eta 25 urteko zerbitzualdia egiaztatu zuenak, erretiro unean jasotzen zituen ordainsari finkoen % 100era arteko pentsioa jasotzen du. 16/2012 Errege Lege-dekretua, apirilaren 20koa, Osasunaren Nazio Sistemaren iraunkortasuna bermatzeko eta prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko presako neurriari buruzkoa



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

indarrean sartu izanaren ondorioz, 2012ko apiriletik aurrera ez da kolektibo honetan plantilla handitu.

- Tuberkulosiaren aurkako Patronatutik datorren langileria, Osakidetzak osorik jasotzen duena gizarte Segurantzaren ez kotizatu izateagatik.
- 1994ko abenduaren 31 baino lehenago erretiratutako Basurtoko Ospitaleko langileria jakina.

- Erretiro sariak:

Arauzko erretiro-adina baino urtebete eta lau urte bitarte lehenago erretiratzen den langileria. Abenduaren 23ko 6/2011 Legeak, 2012ko ekitaldirako EAEren Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, sari honen aplikazioa bertan behera utzi zuen eta ondoko ekitaldian etenaldiak dirau.

2018ko abenduaren 31n pentsioetarako zuzkidura 88 milioi eurorena izan da, Osakidetzak emandako aztergai diren kolektiboaren datuak oinarri hartuta aditu independenteek egindako azterketa aktuarial baten arabera.

Enteak zuzkidura hau ez erregistratzeko eta soil-soilik egiaz gauzatutako urteko gastua kontabilizatzeko irizpideari eusten dio, 6,5 milioi eurorena izan dena.

Hona hemen pentsioetarako zuzkidura eta kontzeptu honen izenean ekitaldian gauzatutako gastuak kolektibo moten arabera banatuak:

KOLEKTIBO MOTA	Euroak milakotan	
	GASTUAK	ZUZKIDURA
Insaludetik datozen langile pasiboak	6.367	87.281
Tuberkulosiaren aurkako Patronatuko langileak	105	602
Basurtoko Ospitaleko 1995 baino lehenagoko langileak.....	14	58
Erretiro saria jasotzeko eskubidea duten langileak.....	-	-
GUZTIRA	6.486	87.941

2004ko irailaren 30eko Osakidetzaren administrazio-kontseiluaren erabaki bitartez onartu zen Eusko Jaurlaritzak sortutako Itzarri gizarte-aurreikuspeneko erakundera atxikitzea, alde aurretik erakunde sindikalekin adostu ondoren. 2017ra arte etenda egon dira Itzarriri egin beharreko ekarpenak, abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretuaren ondorioz, defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, zerga eta finantza gaietan premiazko neurriak buruzkoa. 2018an berriz abiarazi dira ekarpenak, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legean eta Eusko Jaurlaritzako Kontseiluaren 2018ko urtarrilaren 23ko eta azaroaren 13ko erabakietan xedatutakoaren ondorioz: langile gastuetarako zuzkiduren % 0,5 urrira arte eta % 1 azarotik aurrera; horrek guztiak 8,3 milioi euroren gastua eragin du.

A.3 LANGILERIA-GASTUAK

Idazpuru honen gastuak guztira 2.016,6 milioi euro egiten ditu eta 2016ko ekitaldiko ustiapen gastuen % 67,7 egiten du.

Langile gastuaren xehakapena eta batez besteko plantilla honakoa da:

	Euroak milakotan		Langile kop.	
	2018	2017	BAT. BEST. PLANTILLA 2018	2017
Finkoak, bitartekoak eta zuzendariak	1.133.921	1.051.079	24.553	24.409
Aldi baterako langileak	225.481	215.762	9.057	8.325
Ordezkoak	198.042	166.046	3.227	3.019
Barruko osasun langile egoiliarak	48.127	46.091	1.304	1.251
SOLDATAK ETA PLANTILLA GUZTIRA	1.605.571	1.478.978	38.141	37.004
Gizarte Segurantzaren kotizazioa	391.559	368.268		
Pentsioak	14.915	6.713		
Beste gizarte-gastu batzuk	4.580	4.578		
GIZARTE KARGAK GUZTIRA	411.054	379.559		
GUZTIRA	2.016.625	1.858.537		

Abenduaren 22ko 5/2017 Legean finkatutakoari jarraikiz, EAEren 2018rako Aurrekontu Orokorra onartzen dituen, Osakidetzako langileen ordainsariak 2018an % 1,5 igo dira ekainera arte eta % 1,75 uztailetik abendura bitartean, 2017an izandako igoeren aldean. Alabaina, langile-gastua 158,1 milioi euro igo da, % 8,5 2017koaren aldean, nagusiki garapen profesional kontzeptuan ordaintzeko dauden zenbatekoak aitortu direlako, 125,5 milioi euro, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren maiatzaren 9ko 225/2018 epaiaren ondorioz. Gainera, areagotu egin da ordezko eta aldi baterako langileen kontratazioa, unean uneko beharrei eta zerbitzuei laguntza emateko, demanda sanitarioa bideratzearen.

Osakitzaren egiturazko plantillari dagokionez, 2018ko urriaren 9ko Jaurlaritzaren Kontseiluak erabaki zuen egiturazko plantilla 97 postutan handitzea, Eibarko Ospitalea giza baliabideez zuzkitzeko, zeinak jarduerari 2018ko urrian ekin baitzion. 2018ko abenduaren 31n Osakidetzako egiturazko plantilla, Zuzendaritzako 94 lanpostuak barne, 26.591 lanpostukoa da.

EPE

Osakidetzako 2016ko apirilaren 25eko eta 2017ko uztailearen 3ko administrazio-kontseiluek, hurrenez hurren 2016 eta 2017ko ekitaldietarako enplegu publikoaren eskaintzak onartu zituzten. Hautaketa prozesuen arrazionalizazio eta efikazia arrazoiengatik onartu zen enplegu-eskaintzako plazak metatzea, deialdi bakarra egiteko bi eskaintzetako plaza hutsen kopuru osoa barne hartuta, guztira 3.335 plaza; horietatik 3.016 plaza txanda librean eskaini ziren eta gainerako 319 plazak, berriz, barne-promozioko prozesuetan.



Osakidetzako zuzendari nagusiaren 2018ko otsailaren 5eko ebazpen bitartez 2016-2017ko EPEaren oinarri orokorrak onartu ziren. Espezialitate medikuen araberako plazen deialdi berariazkoak 2018an eta 2019an onartu eta argitaratu dira.

Eskaintza publiko honetan hainbat salaketa jarri dira zenbait mediku-espezialitatetako proben garapenean eta horren aurrean, 2018ko ekainaren 4ko Administrazio-kontseiluak 2016-2017ko EPEaren proba guztietan emaitzen koherentziari buruzko azterketa zorrotza egitea erabaki zuen, aukera-berdintasuna bermatzearren. Horren ondorioz, Enteak erabaki zuen 3 mediku-espezialitatetako probak errepikatzea. Txosten hau idatzi dugun datan, EJKo Osasun Sailak erabaki du EPEaren guztira 13 hautaketa-prozesu kautelaz etetea; izan ere, Gasteizko 2 zenbakiko instrukzioko epaitegiak eginbideak abiarazi ditu azterketen filtraziorik egon zen zehazteko; alabaina, ikerketa-gai ez diren deitutako kategorien hautaketa-prozesuek aurrera jarraitzen dute.

A.4 KONTRATAZIOA

102 espediente aztertu ditugu, 19 aurreko ekitaldietan formalizatutakoak, zeinaren egikaritza 2018an gauzatu baita, aldaketak eta luzapenak kasua balitz, eta 83, 2018an formalizatutakoak; horietatik 24 SPKLn xedatutakoa betez izapidetu dira (beltzez nabarmenduak).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LEHENAGOKO URTEETAN FORMALIZATUAK

Euroak milakotan

ZEI/KONTZEPTUA	PROZED. (*)	ZENBATEKOA 2018 (**)		
		ESLEIP.	EGIK.	AKATSA
ZERBITZU NAGUSIAK				
1. Kud.Klin.Unit.etan birus kargak zehazteko produk. eta ekipoen hornidura	I	2.763	2.138	
2. Zenbait zentrotarako erradiol. digitaleko aretoak hornitzea	I	2.838	2.838	
3. Langileen txandak kudeatzeko sistema bat ezartzea	M	957	469	
4. Laguntza-aplikazioen mantentze-lanaren zerbitzua eta bilakaera	M	6.500	2.515	
5. Lagin biologiko eta anatomia patologikoko garraio-zerbitzuak	I	3.508	3.331	
ARABAKO ZEI				
6. AUO Txagorritxuko egoitzako zerbitzu nagusien eraikin berriaren eraik	I	39.141	9.318	
7. Endoskopiako ekipoen hornidura, mantentze-lan integralarekin	I	2.055	580	
DONOSTIALDEKO ZEI				
8. Arnasketa-birusak eta patogeno gastroenterikoak atzemateko plataf. horn....	I	1.391	1.277	
9. Osasun Zentroak garbitu eta desinfektatzeko zerbitzua	I	4.522	3.554	
BIDASOAKO ZEI				
10. Garbiketa zerbitzua	I	4.995	2.535	
BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREA				
11. Zaintza eta segurtasun zerbitzua	L	1.579	162	
BARRUALDE-GALDAKAKO ZEI				
12. M.A. Centurion eta Constellation ekipoetarako material-erosketa	EPGN	1.600	588	
13. Garbiketa eta desinfekzio-, hondakinak jaso eta lorezaintza-zerbitzua	I	15.250	12.212	
BARAKALDO-SESTAOKO ZEI				
14. Garbiketa zerbitzua	I	9.552	6.706	
EZKERRALDEA ENKARTERRI GURUTZETAKO ZEI				
15. EA.Ligasure bisturi materiala eta Sonicision ultrasoinuen sist. hornid.	EPGN	1.253	1.085	
16. EA Parkinsonen tratamend. burmuina estimulatzeko sistemaren hornid.	I	1.417	1.176	
17. EA inmunofenotipoak zehazteko produktuen eta ekipoen hornidura	I	1.601	818	
18. Gurutzetako U.O. kafetegi-jatetxe, jangela eta mak. automat. zerb.....	I	1.561	1.040	
19. Fotokopiagailuen alokairua	I	400	207	
GUZTIRA		102.883	52.549	

(*) Prozeduraren erreferentziak:

I Prozedura irekia M Prozedura murriztua

EPGN Esklusibotasunagatik publikotasunik gabeko negoziatua L: Larrialdia

(**) Esleitutako zenbatekoa BEZik gabe da, aldatetekin, eta aleko prezioen kasuan gehieneko zenbatekoa jasotzen da.

Zenbateko egikaritua, BEZik gabe, 2018ko abenduaren 31n metatutakoa da



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2018-AN FORMALIZATUAK

Euroak milakotan

ZEIKONTZEPTUA	PROZED. URTE. (*)	KOP.	ZENBATEKOA 2018 (**)		
			ESLEIP.	EXEK.	AKATSA
ZERBITZU NAGUSIAK					
20. EA Vedolizumab hornitzea	EPGN	3	3.160	1.043	
21. EA Ecolizumab hornitzea	EPGN	3	11.214	3.286	
22. EA Bevacizumab hornitzea	EPGN	1	6.163	5.520	
23. EA Edalimumab hornitzea	EPGN	1	18.282	15.476	
24. EA Ruxolitinib, Lapatinib eta Everolimus hornitzea	EPGN	3	6.998	1.806	
25. EA Pegaspargasa-ren hornidura	EPGN	3	1.075	187	
26. EA Ustekinumab eta Rilpivirina hornitzea	EPGN	3	13.638	5.065	
27. EA Belatacept, Ipilimumab, Efavirenz, Atazanavir eta beste batzuk hornitz..	EPGN	3	3.031	355	
28. EA Bosutinib hornitzea	EPGN	3	1.001	31	
29. EA Fampridina hornitzea	EPGN	3	1.014	179	
30. EA. Sofosbuvir, Velpatasvir eta Voxilaprevir-en asoziazioa	EPGN	1	1.575	1.081	
31. EA Glecaprevir eta Pibrentasvir-en asoziazioa hornitzea	EPGN	1	12.379	11.001	
32. EA inhibitzailearen aurkako koagulatzaile konplexua hornitzea	EPGN	3	2.981	695	
33. EA Baricitinib hornitzea	EPGN	3	2.198	493	
34. EA Pertuzumab eta Pirfenidona	EPGN	3	9.775	2.917	
35. EA Aztreonam eta Emtricitabina, Rilpivirina eta bst baten asoziaz. horn.	EPGN	3	17.751	1.020	
36. EA Reslizumab hornitzea	EPGN	3	1.011	192	
37. EA Trastuzumab, Erlotinib eta Dornasa hornitzea	EPGN	3	20.963	4.617	
38. EA Pemetrexed	EPGN	1	4.396	2.331	
39. EA Levodopa / Cardidopa eta Lopinavir / Ritonavir asoziazioen hornidura ...	EPGN	3	4.157	880	
40. EA Cabozantinib hornitzea	EPGN	3	2.057	227	
41. EA Olaratumab hornitzea	EPGN	3	2.536	203	
42. EA Teduglutina hornitzea	EPGN	3	2.136	175	
43. EA Nusinersen hornitzea	EPGN	3	7.738	1.548	
44. EA Palbociclib hornitzea	EPGN	3	20.923	1.411	
45. EA Alemtuzumab, Alglucosidasa, Cabazitaxel, eta bst. batzuk hornitzea	EPGN	3	10.885	1.835	
46. EA Paliperidona parenterala	EPGN	3	1.085	47	
47. EA Ceftazidima eta Avibactam hornitzea	EPGN	3	3.252	44	
48. Selexipag hornitzea	EPGN	3	2.187	18	
49. Osimertinib hornitzea	EPGN	3	4.199	122	
50. Azido obeticolico hornitzea	EPGN	3	5.348	74	
51. Etelcalcetida hornitzea	EPGN	3	4.351	9	
52. Nivolumab hornitzea	EPGN	3	16.940	95	
53. Cetuximab hornitzea	EPGN	3	5.525	3	
54. Sugammadex hornitzea	EPGN	3	9.525	11	
55. EA Alfa 1 Antitripsina hornitzea	I	1	1.952	1.678	
56. EA zentro sozio-sanitarioei produktu dietetikoak hornitu eta banatzea	I	2	5.589	820	A9
57. EA Emtricitabina eta Tenofovir disoproxilo asoziazioa hornitzea	I	1	2.088	368	
58. Cetuximab hornitzea	I	1	5.995	3.025	
59. EA Epoetina Alfa hornitzea	I	1	3.668	867	
60. EA Efavirenz, Emtricitabina eta Tenofovir asoziazioa hornitzea	I	0,5	1.326	837	
61. EA Infliximab hornitzea	I	1	7.200	293	
62. EA sasoiko gripearen aurkako txertoak hornitzea	I	1	1.100	865	
63. Eibarko Ospitale berrian obra osagarriak (3. solairua gaitzea)	EPGN	0,4	2.131	1.933	
64. Zauriak eta azala zaintzeko apositoak eta sendatzeko produktuak hornitzea	I	2	13.384	1.919	
65. Odolean glukosa neurtzeko auto-analisirako tira erreaktiboak hornitzea	I	2	7.400	1.869	A8
66. EA belauneko inplanteak hornitzea	I	2	137.836	2.145	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2018-AN FORMALIZATUAK

Euroak milakotan

ZEI/KONTZEPTUA	PROZED. (*)	URTE KOP.	ZENBATEKOA 2018 (**)		
			ESLEI.	EGIK.	AKATSA
67. Kontratazioko espedienteak elektronikoki kudeatzeko sistema ezartzea	I	2	1.275	250	A9
68. Arabako ZEI eta Arabako Errioxako ZEIko garbiketa zerbitzua.....	I	2	14.452	4.293	
69. Laguntza zentroetan osasun hondakinen kanpoko kudeaketa.....	I	2	3.341	707	
70. Araban ZEIentzat zaintza zerbitzua eta laguntza zerbitzuak.....	N	1	1.039	1.039	
71. EA Infusio-ekipoen hornidura.....	I	2	2.590	29	
72. EA produktu hermostatikoen hornidura	I	2	4.485	473	
73. Hemokultiboko eta mikrobakterioen kultiboko produk. eta ekipoen hornid.	I	2	1.526	203	
74. EA bukarreko minbiziko metastasia detektatzeko orod, eta ekip. horn.	EPGN	3	1.110	379	A7
75. EA zenbait ZEltan analisi klinikoaren probetarako prod. eta ekip. hornid.....	I	4	9.827	1.435	A7
76. Zenbait zentrori gas naturala hornitzea	I	2	2.504	492	A9
77. Zenbait zentrotarako hiru bizkorgailu lineal hornitzea	I	1,3	6.260	-	A1,9
78. Gurutzetako eta Basurtoko UOrako bi erresonantzia magn. horn.	I	0,1	3.382	3.382	A1
79. Zenbait zentrotarako ekokardiografia ekipoak hornitzea	I	0,1	2.292	1.972	A1
80. Zenbait zentrotarako Spect Tac tomografoak hornitzea	I	0,1	2.464	2.464	A1
81. Robotikako hiru sistema horn. eta mant. eta zenbait ospit. mater.	EPGN	5	19.344	314	A1
82. Arritmia eta estimulazio kardiak. Gorp. Soluz. Integrala inplantatzea	R	1,5	619	-	A9
83. Zenbait ospialetan unitate kritikoak kudeatzeko softwarea erostea..	I	2	699	-	A1,3
84. Ospitaletan erradiologia digitalizatzeko sist. mant. eta lagun. zerb.	EPGN	2	2.668	968	A1
ARABAKO ZEI					
85. Zerb. zentr. eraikin berriko horma eta zutabeetako oheburuak horn.	I	0,1	1.246	1.246	A1,8
DONOSTIALDEKO ZEI					
86. Aieteko Osasun Zentroa eraikitzea	I	1,5	3.587	-	A9
87. ZEIrako igeltseritza lanak	I	2	1.200	31	A1,3,9
88. EA Ligasure zigitatze baskularrerako tresnak hornitzea.....	EPGN	2	1.005	3	A1
89. Donostiako Ospit. kafetegi, saltzeko makina eta jantokiko zerb.	I	8	2.219	29	
BIDASOAKO ZEI					
90. Bidasoa Ospitalerako ikuztegi zerbitzua	I	4	1.126	399	
91. Eraikinak eta instalazioak egokitu eta zaharberritzeko zerbitzuak.....	I	3	902	-	A1,3
SANTA MARINA OSPITALEA ZEI					
92. Santa Marina Ospitaleko ospitalizazioko 2. solairua zaharberritzea ...	I	1	1.574	-	A1
BILBO-BASURTOKO ZEI					
93. Basurtoko UO erradiologia baskular eta interbentzioko materiala hornitzea .	I	2	2.381	898	
94. EA estaldura kirurgikoa emateko erabili eta botatzeko ekipoak hornitzea	I	2	1.282	13	
95. Garbiketa eta lorezaintza zerbitzua	I	2	15.799	12.709	A6
96. EA Laboratorio elektrofisiologikorako osasun materiala hornitzea	I	2	1.999	274	A1
97. EA errektiboak hornitzea diagnostiko azkar eta serologiarako Basurtoko UO	I	1	2	1.026	155
BARAKALDO-SESTAOKO ZEI					
98. Oftalmologiako lenteak eta inplanteak	I	3	1.609	72	A1,3,4,5,8 B1,2
99. ZEIrako instalazio eta obren mantentze-lan integrala.....	I	4	927	243	A1,2,3,8
100. ZEIrako ikuztegi zerbitzua	I	4	1.386	106	A6,8
EZKERRALDEA ENKARTERRI GURUTZETAKO ZEI					
101. EA Angioerradiologia zerbitzurako materiala hornitzea	I	2	1.250	538	A8 B1,2
102. EA Nefrologia zerbitzurako hemodialisis materiala hornitzea	I	2	1.167	230	
GUZTIRA			552.680	115.962	

(*) Prozeduraren erreferentziak:

I Prozedura irekia M Prozedura murriztua

N Negoziatua

EPGN Esklusibotasunagatik publikotasunik gabeko negoziatua

(**) Esleitutako zenbatekoa BEZik gabe da, aldaketekin, eta aleko prezioen kasuan gehieneko zenbatekoa jasotzen da. Zenbateko egikaritua, BEZik gabe, 2018ko abenduaren 31n metatutakoa da



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Gainera, 2018an indarrean dauden 4 gastu-espeditente aztertu ditugu, zenbait ZEItan eragina dutenak eta nagusiki akordio edo atxikipen bidez gauzatu direnak.

ZEI/KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	ZENBATEKOA 2018 (**)		
	ESLEI.	EGIK.	AKATSA
ZUZENDARITZA NAGUSIA			
103. Osakidetzako aseguru orokorrak 2018 urtea	17.389	10.987	
ZERBITZU NAGUSIAK			
104. Zenbait ZEItan energia eta sorkuntza	7.188	6.989	
105. Osasun Ministerioaren eta Josepf Carreras Fundazioaren arteko akord. ...	1.114	1.114	
106. 4 ZEItan ikuztegi eta arropa zuri zerbitzuak	1.540	1.540	C1
GUZTIRA	27.231	20.630	

(**) Esleitutako zenbatekoa BEZik gabe da, aldaketekin, eta aleko prezioen kasuan gehieneko zenbatekoa jasotzen da. Zenbateko egikaritua, BEZik gabe, 2018ko abenduaren 31n metatutakoa da

AKATSA		Euroak milakotan	
Lizitazioa			
A1	Lizitazioko oinarriko aurrekontuaren kalkulua ez da justifikatzen ez xehatzen (SPKL 100.2 art.).....	47.571	
A2	Ez dago erasota kontratuaren xedea sortetan ez zatitzeko justifikazioa (SPKL99.3 art.)	927	
A3	Ez da jaso prezio irizpidea baloratzeko baliatutako formularen justifikazioa (SPKLren 146.2 art.).....	5.337	
A4	Adituen Batzordeko kideak kontratua proposatu duen organokideak dira (SPKLren 146.2 art.)	1.609	
A5	Barianteak onartzen dira baldintzak, moldeak eta ezaugarriak zehaztu gabe (SPKLren 142.1 art.)	1.609	
A6	Aurreikusitako aldaketek ez dituzte baldintzak betetzen (SPKLTBren 106. art. eta SPKLren 204. art.).....	17.185	
A7	Esparru Akordioaren kontratuaren iraupenak 4 urteko epea gainditzen du (SPKLTBren 196 art.)	10.937	
A8	Ez da bermatzen eskaintzarik onuragarriena esleitzea (SPKLTBren 150.1 art. eta SPKLren 145. art.).....	7.400	
A9	Prezio irizpidea estimulurik gabe, mugak ezartzen ditu bajak baloratz. (SPKLTBren 150.1 art. eta SPKLren 145 art.)	21.034	
Esleipena			
B1	Txosten teknikoa ez dago behar bezain arrazoitua (SPKLTBren 151 art. eta SPKLren 151.1 eta 157.5 art.).....	2.859	
B2	Behar hainbat arrazoitu gabeko esleipen ebazpena (SPKLTBren 151 art. eta SPKLren 151.2 art.)	2.859	
Espezifikoak			
C1	kudeatzeko mandatu okerrekoa, ez baitu Osakidetzako berezko baliabide izatearen baldintza betetzen.....	1.755	

Kontratu txikiak

Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako kontratu txikiak aztertze honako zenbateko eta ez-betetze hauek ondorioztatu dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan							
	GASTUA		K. TXIKIA		AZTERTUA		EZ-BETETZEA	
	GUZTIRA	ZENBATEKOA	%	ZENBATEKOA	%	ZENBATEKOA	%	
Sendagaiak	292.397	21.989	% 7,5	21.989	% 100	19.061	% 86,7	
Gainerako produktuak.....	310.159	64.262	% 20,8	64.262	% 100	53.843	% 83,8	



Kontratu txiki bidez sendagaiak erosteari dagokionez, azpimarratzekoa da kontratu txikien zenbatekoa murriztu izanaren ondorioz izan duen bilakaera positiboa, 2012an 72,1 milioi eurorena izatetik, 2018an 22 milioi eurorena izatera aldatu baita.

A.5 OSATEK SA

Osatek SA Osakidetzara –kide bakar duena- atxikitako sozietate anonimoa da; sorrera ekainaren 9ko 159/1992 Dekretu bidez baimendu zen, hasiera batean alta Tecnología Sanitaria, SA izena eman zitzaiola eta sozietatearen helburua honako hau zuela: goi mailako teknologia baliatzen duten osasunaren diagnostiko- eta tratamendu-zerbitzuak kudeatu, administratu eta ustiatzea; eta Euskal Herriko osasun politika globalaren esparruan zehazten diren araubide eta baldintzetan irakaskuntza eta ikerkuntza.

2009ko urriaren 23an Osatek SAREN administrazio-kontseiluak sozietatearen helburua aldatu zuen eta irakaskuntza eta ikerketari bere horretan eutsiz, helburua definitzen du euskal osasun sistemari babesa emateko zerbitzuen emakida edo zuzkidura modura, bereziki izaera korporatiboa duten haien edo goi mailako teknologia-prozedurak eskatzen dituzten haiena.

2010eko otsailaren 17an Osakidetzako administrazio-kontseiluak, Osatek SAREN Batzorde Nagusi denak, Sozietatearen Estatutuen 1. artikulua aldaraztea onartu zuen, EAEko Administrazio orokorraren gauzazko berezko baliabide eta zerbitzu tekniko modura aitortua izateko.

2010eko abenduaren 22an Osatek SAREN administrazio-kontseiluak berriz Sozietatearen helburua aldatzea erabaki zuen, osasun esparrua giza esparrura ere hedatzeko. Batzar Nagusiak ere aldaketa hau 2011ko urtarrilaren 10ean onartu zuen.

2018an Osatek SAK jarraitu du jarduera erradio-diagnostikoa egiten (nagusiki Osakidetzari ematen dio zerbitzua) eta 2018ra arte baita gizarte zerbitzuen alorrean norbanakoei telelaguntza zerbitzua ematen ere, zeina Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailaren kudeatzeko mandatu bidez ematen baitzuen; zerbitzu hori 2018an amaitu du.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Langileria-gastuak

2018ko ekitaldian, Osatek SAREN langileria-gastuek 15 milioi euro egin dute, honako kontzeptu hauen izenean:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	2018	2017
Soldatak eta ordainsariak	12.496	11.742
Gizarte Segurantza	2.422	2.336
Beste gizarte-gastu batzuk	74	9
GUZTIRA	14.992	14.087

2018an langileen gastuak % 6,4 egin du gora 2017koaren aldean honako arrazoi hauengatik: ordainsariak igo egin dira, % 1,5 ekainera arte eta % 1,75 uztailetik abendura; aldi baterako kontratazioak gehitu egin dira jarduera erradio-diagnostikoa handitu egin delako; eta Itzarriri egiten zaion ekarpena berrabiarazi da 2018an, % 0,5 urrira arte eta % 1 azarotik aurrera.

2018ko ekitaldi itxieran, egiazko plantilla 238 langilekoa da; hona hemen xehakapena:

	Langile kop.									
	GOI ZUZENDARITZA		MUGAGABEAK				ALDI BATERAKOAK		GUZTIRA	
	2018	2017	FINKOAK	EZ	FINKOAK		2018	2017	2018	2017
Zuzendariak	1	1	-	-	-	-	-	-	1	1
Zuzendariak eta arlo-arduradunak	-	-	2	2	-	-	2	2	4	4
Langile sanitarioak	-	-	85	85	30	27	58	42	173	154
Langileria administr. eta teknikoak	-	-	27	27	13	9	20	17	60	53
GUZTIRA	1	1	114	114	43	36	80	61	238	212

Langile mugagabe ez finkoen kopurua, 2018an aldi baterako kontratua zutenena, 7 pertsonatan gehitu da epai judizialen ondorioz.

Zerbitzuak emateagatiko sarrerak

Kontzeptuen araberako sarrerak dira:

	Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	2018	2017
Mediku miaketak (Erres.Magn.) / Osakidetza.....	19.180	18.027
Telelaguntza-Telemonit./Enplegu eta Gizarte gaiet. saila ...	5.970	7.462
Bestelako sarrerak.....	102	87
GUZTIRA	25.252	25.576

Osakidetzari erradio-diagnostiko zerbitzuak emateagatiko sarrerak 19 milioi euro egin dute, negozio zifraren zenbateko garbiaren gainean % 76 egiten dutenak. Urtero, zerbitzuen emakida baldintzak arautzen dituen hitzarmena izenpetzen da eta, besteak beste, zehazten ditu emandako zerbitzuen tarifak, aurreikusitako jarduera eta finantzaketa, zerbitzuen kartera eta emandako zerbitzuen kalitatea ebaluatzeko adierazleak.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politika Saitetik 6 milioi euro jaso dira telelaguntza zerbitzuak emateagatik, 2013ko uztailaren 29an izenpetutako kudeatzeko mandatuan aurreikusitakoaren arabera, 2018ko irailera luzatutakoa. Gainera, Osasun Sailari erradio-diagnostiko zerbitzua emateagatik 31 mila euro jaso dira kontratu-programa baten bitartez, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legearen 19. artikulua onduz eta, besteak beste, jasotzen ditu aplikatu beharreko tarifak, jarduera, eskatutako kalitatea eta beharrezkoa den finantzaketa.

Kontratazioa

2018ko ekitaldian formalizatutako 5 espediente aztertu ditugu.

FORMALIZATUTAKO ESPEDIENTEAK		Euroak milakotan		
ESPEDIENTE ZK./DESKRIBAPENA	PROZED. (*)	ZENBATEKOA 2018		
		ESLEI.	EGIK.	AKATSA
1.RM hornitzaea Donostia eta Eibarrerako, obrak eta mantentze-lanak barne..	I	3.244	1.989	A1,2
2.RM hornitzaea Urdulizerako, obrak eta mantentze-lanak barne	I	1.524	860	A1,2
3.Siemens ekipoen mantentze-lanetako zerbitzua.....	EN	787	-	A1
4.RM laguntza kudeaketako aplikazio korporatiboen mantentze-lana	EN	50	43	A1
5.Laneko aholkularitza eta tramitazio zerbitzuak.....	IE	34	11	A1
GUZTIRA		5.639	2.903	
(*) Prozedura:		I Irekia	IE Ireki erraztua	EN Esklusibotasunagatik negoziatua

Akatsa

Euroak milakotan

Lizitazioa

A1 Lizitazioko oinarriko aurrekontuaren kalkulua ez da justifikatzen ez zehatzen (SPKL 100.2 art.).....	5.639
A2 Ez da jaso prezio irizpidea baloratzeko baliatutako formularen justifikazioa (SPKLren 146 art.).....	4.768

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN ETA OSATEKEN 2018 ALDIKO FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI EGINIKO ALEGAZIOAK

I.- SARRERA

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren eta OSATEK SA sozietatearen 2018. urteko fiskalizazioaren emaitzei erantzuteko, erreferentziatzeko gaiaren inguruan erakunde horiek egin nahi izan dituzten eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoan zentralizatu diren alegazioak eta justifikazioak aurkezten dira txosten honetan.

II. IRITZIA

II.1 OSAKIDETZA

II.1.1 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Kontratazioa

2. Esparru-akordioko espediente batean, aleko prezioetan 7,4 milioi euroan esleitutakoan (65 zk. espedienteak), prezio irizpidearen balorazioan, baloratu daitekeen irizpide bakarra izanik, gehieneko puntuazioa eskuratzen da eskainitako prezioa lizitaziokoa baino baxuagoa bada, eta ez dira eskaintzak sailkatzen eskainitako prezio onenaren arabera, SPKLTBren 150. artikulua aurreikusitakoaren aurka. Gainera, kontratuen geroko esleipenak eragin du ia kontratu guztiak eskaintza garestienei esleitzea, ekonomikoki egokiena den eskaintza hautatzeko printzipioak gorde gabe, hau da, gardentasuna, tratuberdintasuna eta proportzionaltasuna, SPKLTBren 1 eta 150 artikuluek agintzen dutena urratuz, zeina berretsi eta garatu baita SPKLren 145.5 b) artikuluan.

ALEGAZIOA

Irizpide ekonomikoaren aplikazioak berekin dakar, inplizituki, lizitazio-prezioetatik beherako eskaintzetan soilik aplikatzen dela formula; beraz, ulertzen da irizpidearen formulazioa ez dela baztertzaila.

Kontratazio Publikoaren Administrazio Auzitegiak berak, 51/2019 Ebazpenean, onargarritzat jotzen du lizitazioaren prezioa berdintzen duen eskaintzak puntuaziorik ez lortzea.

Ondorioz, irizpide hori aplikatuta, zeinak puntuazioaren aukera osoa esleiri daitekeela aurreikusten baitu, prezio baxuena eskaini duen lizitatzaila jaso du puntuaziorik altuena, eta baxuena, berriz, prezio altuena eskaini duenak (irizpide onargarria Kontratazio Publikoaren Administrazio Auzitegiaren 51/2019 Ebazpenaren arabera). Horrez gain, lizitatzaila guztiak onartu dute irizpidea.

«Formula» kontzeptuak ez du esan nahi, nolana ere, emaitza batera iristeko «formula matematiko» bat aplikatu behar dela. Gainerako irizpide automatikoen intzidentziari eta eskaintzen gaineko emaitzari dagokienez, arau bat (algoritmoa) aplikatzean datza baliatutako formula, eta horrenbestez, inola ere ez daude iritziaren mende (betetzen du edo ez du betetzen) eta argi eta garbi daude adierazita.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Egoeraren balantzeak ez ditu barne hartzen Insaludetik datorren langileria estatutario sanitario ez fakultatiboaren erretiro osagarriak, ez Tuberkulosiaren kontrako Patronatuaren langileria funtzionarioarenak, ez eta 1994ko abenduaren 31 baino lehenago erretiratu zen Basurtoko Ospitaleko hainbat langilerena ere. Obligazio hauek erregistratzeko Osakidetzak kutxa irizpidea darabil nagusiki eta 2018an gastu modura ekitaldian ordaindutako 6,5 milioi euroak jaso ditu.

Ezargarria den finantza informazioko arau-esparruari jarraiki, pentsio osagarriek eta antzeko beste batzuek sortutako pasiboak azterketa aktuarialen bitartez zenbatetsi behar dira eta sortzapen printzipioaren arabera erregistratu. Osakidetzak aditu independenteek egindako azterketa aktuariala du; azterketa honek haren pasibo aktuarialak 88 milioi euroan kuantifikatu ditu 2018ko abenduaren 31n; Osakidetzak, ordea, ez du dagokion zuzkidura erregistratu (ikus A.2).

ALEGAZIOA

Aurrerago Kontuen Epaitegiaren txostenean bertan adierazten den moduan, Enteak bere irizpideari eutsi dio; hau da, ez du zuzkidura hori erregistratu, eta benetan ordaindutako urteko gastua soilik kontabilizatu du, alegia, 6,5 milioi euro.

III. BARNE-KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

III.1. OSAKIDETZA

III.1.1. PERTSONALEKO GASTUAK

2018an indarrean dauden 21 antolakundearen egiturazko plantilla guztira 26.591 lanpostuk osatzen dute. KEBek aztertu ditu 8 erakundetako 11.848 lanpostuetako 467 langile finko eta bitartekoen ordainsariak, % 3,9 egin dutenak, eta behin-behineko langile estatutarioen 61 espediente aztertu ditu. Hona hemen azaleratu diren ez-betetzeak:

- Gainditu egin da 13 espedientetan zerbitzu eginkizunetarako finkatutako 2 urteko epemuga eta 48 espedientetan maila jasoagoko egitekoetarako finkatutako urtebeteko muga.



ALEGAZIOA

Horren harira, gogora ekarri behar dugu zein den aldi baterako eta bitarteko izendapenen iraupenaren arrazoia, bai eta zerbitzu-eginkizunena, aldi-baterako barne-igoerena eta abarrena ere: zerbitzu-erakundeetan sortzen diren beharrei erantzutea, eskariari egokitzen zaion kalitateko osasun-arreta bat emateko. Horrenbestez, zerbitzu horiek ematen jarraitzeko beharrezko iraunaldia izaten dute, horretarako ezartzen diren lanpostuak araudiaren arabera betetzen diren arte, guztia indarreko legedia betez.

Edonola ere, eta zerbitzu-eginkizunen iraupenari buruzko oharrari erantzunez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari aurreko txostenetan esandakoa berretsi nahi dugu: osasun-zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatutu Markoaren abenduaren 16ko 55/2003 Legeak (Osakidetzako estatutupeko langileei zuzenean aplikatu behar zaien araudiak, alegia) zerbitzu-eginkizunak arautzen ditu 39. artikuluan, inolako epemugarik ezarri gabe. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea araudi osagarria izango litzateke berariazko araudiak xedatzen ez dituen puntuetan, eta kasu honetan ez da horrelakorik gertatzen.

Ildo horretan, 2017ko fiskalizazioari buruzko azken txostenean, Osakidetzak defendatzen duen moduan eman diren epailetako bat jasotzen zen, zehazki Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiaren 90/08 Epaia, txosten honetan errepikatutzat jotzen duguna.

Osakidetan hutsik dauden plazak betetzeko aplikatu beharreko eta, beraz, nahitaez bete beharreko indarreko araudia ere aipatzen zen, hau da, ERABAKI honetan jasota dagoena: Osakidetzak Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko ERABAKIA, Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan lanpostuak zerbitzu-eginkizunaz eta aldi baterako barne-sustapenez hornitzeko irizpideak eta lanpostuak behin betiko barne-mugikortasunaren bidez hornitzeko irizpide orokorrak onartzen dituen.

Araudi horrek berariaz jasotzen du zerbitzu-eginkizuna Osakidetzan hutsik dauden lanpostuak aldi baterako betetzeko sistemetako bat dela, harik eta arauz behin betiko bete arte, EPE edo lekualdatze-lehiaketa bidez.

Txostenean adierazten zen bezala (eta berriz jotzen dugu errepikatutzat), zerbitzu-eginkizuna lanpostu hutsak edo erreserbatuak betetzeko prozedura bat da, nahitaez bete beharrekoa, aldi baterako edozein kontratazio-eskaintza baino lehen, eta ez zaio ezartzen indarraldirik, salbu eta lanpostua arauz betetzen bada legez ezarritako prozeduren bidez, edo, hala badagokio, lanpostua gordetzeko eskubidea duten langileak lanera itzultzen badira.

Azaldutakoa alde batera utzita, adierazten zen, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioen zerbitzu-eginkizunak izapidetu direnean Osakidetzan zerbitzuak emateko, administrazio publikoen arteko lankidetzaren esparruan egin direla, Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duen urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren 51.1 eta 51.3 artikuluetan berariaz ezarritakoaren arabera, eta kasu horietan, bi urterako baimendu dira, epe hori luzatzeko aukerarekin.

Laburbilduz, araudiak epemugak ezartzen dituenean, muga horiek zorrotz bete dira.



Bestalde, kontuan hartu behar da aldi baterako zerbitzu-eginkizunetan betetako plaza guztien deialdia egiten dela, dagokienean, lekualdatze-lehiaketaren bidezko mugikortasun-prozesuetan, edo, hala badagokio, EPE bidezkoetan, erregelamenduz betetzeko, izaera finkoarekin.

- *Aldi baterako osagarriei dagozkien arautegi berariazkoak badiren arren, hala nola, mediku zaintzak, maila jasoagoko egitekoak, txandak, gaueko txandak, jaiegunak eta kokalekua, autokontzertazioa eta abar, oro har, arauak hausten jarraitzen da, egiaz gauzatutako zerbitzuen egiaztatzea egiten ez delako eta zerbitzu horiek ez dituelako organo eskudunak onartzen.*

ALEGAZIOA

Zerbitzuak egiaztatzeko dokumentazio faltagatik eta organo eskudunek onartu ez dituztelako betetzen ez diren ordainketa-kontzeptuei dagokienez, esan behar dugu jarduera hori jasotzen duen tresna Giza Baliabideen Kudeaketarako Sisteman integratuta dagoen karteldegia edo txanda-planifikatzailea dela, eta horrekin kudeatzen direla denborak.

Karteldegi horretan, alde batetik, jardueraren datu teorikoa jasotzen da –hau da, programatuta dagoena–, eta, bestetik, karteldegi erreal deritzonean, benetan gauzatutako jarduera eta gainerako gertakariak (absentziak eta presentziak) jasotzen dira, nominan eragiten dutenak. Pentsatzekoa denez, zentro bakoitzak kudeatzen ditu karteldegietako aldaketak, jarduteko prozeduren eta barne-protokoloen barruan. Horrela, benetan egindako jarduera beti ordaintzen da nominan.

Adierazi genuen bezala, eta denbora igaro den arren, Enpleguaren atariko proiektuaren baitan eta bertan definitu diren izapideen eta baimenen bideari jarraituz, lanean ari gara kudeaketa-prozesu egokia zehazteko, eta horren bidez, karteldegian jasotzen den jarduera hori identifikatzeko, nominan ordain dadin. Proiektua aurrera doa, baina hainbat gai tekniko planteatu dira, nominako kontzeptu horien bidez ordaintzen den jardueraren erregistroa eta baliozkotzea aplikazio informatikoan ezartzea atzeratu dutenak.

Karteldegiak jarduera errealak jasotzen du, eta, beraz, irtenbide formal posibleek ez dute laguntza-zerbitzuaren kalitatea urritu behar, ez eta aipatutako kudeaketa-tresna horrek denborak kudeatzeko duen sistema ere.

Adierazitakoa alde batera utzita, beste batzuetan jakinarazi dugun bezala, berretsi egiten dugu Giza Baliabideen Zuzendaritzak hainbat prozesu zehatz burutu dituela kontrol-elementuak aintzat hartuta. Prozesu horren baitan hainbat adierazle definitu dira, Osakidetza osoan zein zerbitzu-erakunde bakoitzean.

- *Nominak berrikustean ikusi da egitekoak bete direla dagokion plantilla funtzionalean era horretan ageri ez diren lanpostuetan, edo Entearen lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan. Plantilla funtzionalak -urtero onartzen baitira- langileen egoera eta funtzio egiazkoetara*



egokitzea gomendatzen da, 186/2005 Dekretuan aurreikusitako lanpostuak aintzat hartuta, eta behar berrietara gaurkotzea.

ALEGAZIOA

Nominako lanpostuak horiei esleitutako ordainsarien arabera definitu ziren, dagokien lanbide-taldearen, kategoriaren eta lanpostu funtzionalaren arabera. Giza Baliabideak Kudeatzeko sisteman, nominan lanpostu bakoitzari esleitutako eginkizunen eta plantilla funtzionaleko lanpostuen arteko korrelazioa eta baliokidetasuna jasotzen dira, Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan deskribatzen den bezala. Hala ere, Zuzendaritza honek planteatzen duen helburuetako bat da uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua berrikustea. Berrikuspen horretan, era berean, lanpostuen egokitzapena jasotzen da, funtzioei, ordainsariei eta izendapenari dagokienez, bai plantilla funtzionalean, bai nominan.

III.1.2. KONTRATAZIOA

- 15 espedientetan, 10 hornidurakok, 4 zerbitzukoak eta 1 obretakoak, 47,6 milioi euroan esleitutakoetan (77, 78, 79, 80, 81, 83, 84, 85, 87, 88, 91, 92, 96, 98 eta 99 zk. espedienteak), ez da justifikatzen lizitazioko oinarritzko aurrekontua merkatuko prezioetara egokitzen dela, eta ez dira kostuak eta bestelako gastuak xehakutzen; ez eta, kasua denean, soldatak ere, SPKLren 100.2 artikulua agintzen duen moduan.

ALEGAZIOA

Benetakoa da gabezia, eta Osakidetzak beharrezko neurriak hartu ditu hautemandako intzidentzia hori zuzentzeko.

- Guztira 5,3 milioi euroan esleitutako 5 espedientetan, 3 zerbitzukoak eta 2 hornidurakoak (83, 87, 91, 98 eta 99 zk. espedienteak) ez da jaso prezio irizpidea balioztatzeko baliatutako formularen justifikazioa, SPKLren 146.2 artikuluan aurreikusitakoaren aurka.

ALEGAZIOA

Egia da adierazitako espediente guztietan prezioaren irizpidearen justifikazioa oso modu orokorrean dagoela formulatuta; hala ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 145. artikulua arabera ezarri da; hala, formulen bidez ebaluatu daitezkeen objektibotasuna lehenetsi da balio-judizioetan oinarritutakoen aldean, eta tratu-berdintasuna bermatuta geratzen da, ez neurtzeko lizitatuzaileen esperientzia, baizik eta eskaintzaren kalitatea eta eskaintzaren egokitasuna kontratuaren azken xederako.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Horiek kontratuaren xedearen ezaugarriak kontuan hartuta daude zehaztuta, produktuaren edo zerbitzuaren berezko ezaugarriak baloratuta eta eskaintzarik onuragarriena lortze aldera.

- *Miloi 1 euroan esleitutako zerbitzuko espediente leian (99 zk. espedienteak), loteka lizita daitekeenean, ez da jaso lotetan ez banatu izanaren justifikazioa, SPKLren 99.3 artikulua agintzen duen moduan.*

ALEGAZIOA

Benetakoa da gabezia, eta Osakidetzak beharrezko neurriak hartu ditu hautemandako intzidentzia hori zuzentzeko.

- *Guztira 1,6 milioi euroan esleitutako hornidurako espediente batean (98 zk. espedienteak), balio-judizioa eskatzen duten eskaintzen balorazio-irizpideak ebaluatzeko adituen batzordean kontratua proposatu duen ataleko kideak bidegabeki barne hartu dira (SPKLren 146.2 artikulua).*

ALEGAZIOA

Alegatzen dugu Kontratazio Mahaiko kide ez diren pertsonak osatzen dutela adituen batzordea.

Halere, Osakidetzak beharrezko neurriak hartu ditu hautemandako intzidentzia hori zuzentzeko.

- *Guztira 6,4 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 5 espedientetan (85, 98, 99, 100 eta 101 espedienteak) -2 zerbitzukoak eta 3 hornidurakoak- prezioaren irizpidea puntuatzeko baliatzen den formulak puntuak ziurtatzen ditu eskaintzak lizitazio tipoa berdintzen duenean; horrek, baina, irizpide hau desitxuratzen du eta eragina du balio-judizio bidezko irizpideekin baloratu beharreko ehunekoaren proportzioan (SPKLTBren 150. eta SPKLren 145. artikulua).*

ALEGAZIOA

Benetakoa da gabezia, eta Osakidetzak beharrezko neurriak hartu ditu hautemandako intzidentzia hori zuzentzeko.

- *7 espedientetan (56, 67, 76, 77, 82, 86 eta 87 espedienteak) -1 obrakoa, 2 zerbitzukoak eta 4 hornidurakoak- 21 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoetan, eskaintza ekonomikoen balorazioan mugak edo atalaseak ezarri dira eta horietatik*



gora merkatze gehigarriak aurkezteari sustagarria kentzen diote, eskaintza onuragarriagoa hautatzea baldintzatuz.

ALEGAZIOA

Prezio-irizpidea arrunta da lizitazio guztietan; izan ere, «ekonomikoki onuragarriena den eskaintza» kontzeptutik ezin dela bereizi ulertzen da.

Berriz adierazten da, prezioari dagokionez, aukera dagoela –hainbat administratziotako zerbitzu teknikoek onartzen dute– eskaintzarik baxuenari punturik gehien eman beharrean eskaintza ekonomikoen batezbesteko aritmetikora gehien hurbiltzen den eskaintzari punturik gehien emango liokeen balorazio-eredu bat jartzeko. Bi noranzkoetan batezbestekotik alendu ahala, puntuazioa proportzionalki igo edo jaitsiko da alderantzizko norakoan. Administrazio Kontratazioaren Kontsulta Batzordeak bere 8/97 txostenean adierazten zuen SPKLTBren 150. artikulua ez duela ezartzen ebaluatzeko arau zehatzik eta ostera, aipatutakoa bezalako formulak erabiltzeko aukera ematen duela pleguan berariaz jasotzen direnean formula horiek.

Prezio-irizpideari puntuazioa esleitzeko sistema proportzionalak erabili behar dira, eta haien artean atalase jakin baten azpitik eskaintzek ez dutela onura ekonomiko aipagarrikerik erakartzen irizten direnak ere bai, lizitatuzaileak lehia «irrazionaleko» egoeran aurkitzeko zorian egongo bailirateke bestela.

Valentziako Administrazio Kontrataziorako Batzorde Nagusiaren 1/2001 Irizpenak, maiatzaren 21ekoak, lehiaketetan eskaintitako prezioaren balorazio-irizpideari buruzkoak, zera ondorioztatzen du: «edozein kasutan ere, eskaintza merkeenek ezin izango dute hain merkeak ez diren eskaintzek baino puntuazio baxuagorik jaso». Hala ere, jarraian onartzen denez, hainbat balorazio-teknika ezar daitezke, besteak beste, tarteetan, indize zuzentzaileetan edo kontratazio-organoak komenigarritzat jotzen dituen beste edozein indizetan oinarritzen direnak, betiere horien emaitza lehen baldintza denean.

Balear Uharteetako Administrazio Kontrataziorako Batzorde Aholkulariak, 5/98 Txostenean, ekainaren 26koan, lehiaketak esleitzeko irizpidetzat prezioa balioesteari buruzkoan, esaten zuen «indarrean dagoen irizpidea da eskaintzarik baxuenari puntuazio hoberena ematea, zeinahi delarik hori egiteko erabiltzen den formula, ezohiko baxutasuna duten eskaintzei eman behar zaien entzute-eskubidea errespetatuz».

Hori guztia dela eta, beraz, ondorioztatzen da aipatutako premisak bete egiten direla.

Izan ere, eraginkortasunari ez zaio prezioaren ikuspegi hutsetik begiratu behar, kalitatearen eta prezioaren arteko ikuspegitik baizik. Puntu guztiak eskaintza merkeenari ematen bazaizkio, eskaintzen arteko diferentzia modu desegokian areagotzen da proportzionaltasunaren ondorioz; beraz, sistema kutsa dezake, eta beste irizpide batzuetan lortutako puntuazioari kalte egin diezaioke.

Esan den moduan, irizpide objektiboek irizpide subjektiboek (kasu honetan, prezioaren) baino garrantzi handiagoa izatea galarazten du aukera horrek, eta horrela mugatzen da, aurreikus litekeen moduan, lizitatuzaileek portaera arriskutsuegiak hartzea, are beherapen



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

handiagoak eginez eskaintza ekonomikoak (irizpide objektibo nagusia) puntuazio altuagoak erakarriko lituzkeelako gainerako balorazio-irizpideek baino.

Are gehiago, haren xedea da aurreikusten den haztapenaren helburuari eustea, eta bidenabar egokia da hura jasotzea osasun-sektorean (hain sektore sentikorra izanik) non haztapen oker batek desitxuratu baititzake eskakizun teknikoak –normalean, prestazioa zuzen egikaritu ahal izateko funtsezkoenak izaten direnak– eta desegin baitezakete nahitaezko kalitate/prezio harremana, kontuan izanik lehia desitxuratzea ekar lezakeela horrek.

- *1,6 milioi euroan esleitutako hornidurako espediente 1ean (98 zk. espedienteak) pleguek ez dute zehazten zein elementu edo baldintzen gainean aurkez daitezkeen aldaerak, SPKLren 142.1 artikulua aurreikusitakoaren aurka.*

ALEGAZIOA

Benetakoa da gabezia, eta Osakidetzak beharrezko neurriak hartu ditu hautemandako intzidentzia hori zuzentzeko.

- *Guztira 17,2 milioi euroan esleitutako zerbitzuko 2 espedientetan (95 eta 100 espedienteak) aurreikusitako aldaketek ez dituzte baldintzak betetzen, muga kuantitatiboarena izan ezik, hau da, modu argi, zehatz, zalantzarik gabe aurreikusgarriak, zehaztapenez eta objektiboki egiaztagarriak izateko baldintzak, SPKLTBren 106. eta SPKLren 204. artikulua araberak, hurrenez hurren.*

ALEGAZIOA

Hain zuzen ere, aurreikusitako aldaketak oso modu orokorrean ezarri dira, eta Osakidetzak beharrezko neurriak hartu ditu hautemandako intzidentzia zuzentzeko.

- *Guztira 11 milioi euroan esleitutako hornidurako 2 espedientetan (74 eta 75 espedienteak) Esparru-akordioaren kontratuaren iraupenak gainditu egin du SPKLTBren 196 artikuluan finkatutako muga.*

ALEGAZIOA

Benetakoa da gabezia, eta Osakidetzak beharrezko neurriak hartu ditu hautemandako intzidentzia hori zuzentzeko.

- *Guztira 2,9 milioi euroan esleitutako hornidurako 2 espedientetan (98 eta 101 espedienteak), txosten teknikoak ez ditu behar bezala arrazoitzen emandako puntuazioak, SPKLTBren 151.1 eta SPKLren 151.1 eta 157.5 artikuluetan, hurrenez hurren.*



hurren, aurreikusitakoaren arabera. Berebat, txosten horri aipamen egiten dion jakinarazpenaren ebazpena ez da nahikoa, SPKLTBren 151.4 eta SPKLren 151.2 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

ALEGAZIOA

Behar bezala dago arrazoitua balorazio teknikoko txosten teknikoa. Izan ere, Apartatu bakoitzean (azpiapartatuak barne) baldintza teknikoen pleguan definitutako balio-judizioaren bidez ebalua daitezkeen irizpideak aplikatzen dira.

Hala ere, kontratua esleitzeko ebazpenean txosten teknikoak aipatzen dira, ebazpenarekin batera aurkezten edo atxikitzen ez badira ere, ulertzen da ez dagoela arrazoitze-faltarik administrazio-espedituan jasota badaude eta hartzaileak hura eskuratu badu, Euskadiko kontratatzailearen proflean argitaratu baitira (ikus Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren maiatzaren 11ko 107/2012 Ebazpena, Auzitegi Gorenaren 2001eko apirilaren 16ko, 2003ko uztailaren 7ko, 2005eko azaroaren 21eko eta 2009ko urtarrilaren 15eko epaien aipamenarekin).

- 2018an 4 ZEIk Gizarte Zerbitzuen Foru Sozietate batekin indarrean zituzten mandatuak ikuztegi eta arropa zuria garbitzeko zerbitzua emateko, berezko baliabide izateagatik, ez ziratekeen formalizatu behar, data horretan artean ez zutelako Osakidetza berezko baliabide izaerarik. 2018an egikaritutako zenbatekoa 1,8 milioi eurorena izan da.

ALEGAZIOA

Enkargua egiten duen botere esleitzzailearen eta hura jasotzen duen sektore publikoko erakundearen artean ezartzen den harreman mota erabakigarria da eragiketa bat berezko bitartekoen kudeaketa-mandatu gisa kalifikatu ahal izateko, eta, horregatik, kontratazio publikoa arautzen duen legeria aplikatuzetik kanpo geratzeko, SPKLTBren 4.1.n) eta 24.6 artikuluen eta azaroaren 8ko 9/2017 SPKLren 6. eta 32. artikuluen arabera. Harreman horrek mendekotasun-harremana izan behar du, eta aipatutako artikuluetan jasotako baldintza batzuen arabera gauzatu behar da.

Mandatura egiten duen botere esleitzzaileak eduki dezala mandatu-hartzailearen gainean bere zerbitzuen gainean gauzatu dezakeenaren kontrol analogo bat. Horri dagokionez, botere esleitzzaileak bere zerbitzuen gainean egiten duenaren kontrol analogoa egin behar dio enkargua jasotzen duen erakundeari, eta erakunde esleipendunak bere jardueraren funtsezko zatia egin behar du mandatugilearentzat. Berezko bitartekoaren edo zerbitzu teknikoaren izaera berriaz aitortu behar da haiek sortzen dituen arauaren edo haien estatutuen bidez, eta zehaztu behar da zein erakunderi dagokionez daukan izaera hori, eta enkargua sozietate bati egiten bazaio, haren kapital osoa titulartasun publikokoa izan behar da.

Baldintza hori betetzeari dagokionez, INDESA 2010 SLren Estatutu Sozialen 2. artikuluan xedatutakoari jarraikiz (2018ko urriaren 9ko BORMEn argitaratua), badauka sozietate horrek berezko bitarteko instrumentalaren eta zerbitzu teknikoaren izaera Arabako Foru Aldundian, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta hala erabakitzen duten udalerrietako tokiko administrazioan, bai eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 4.1.n) artikuluan jasotako ondorioetarako botere esleitzailatzat jotzen diren horiei lotutako erakunde, organismo eta entitateetan ere. Horrenbestez, INDESA 2010 SLk badauka kudeaketa-mandatuak bere gain hartzeko eskumena, bere helburuak betetzeko orain edo etorkizunean komenigarria den edozein jarduera egite aldera.

Mandatu-hartzaileak bere jardueraren funtsezko zatia egin behar du mandatua egiten duen botere esleitzailarentzat.

Indesa 2010 SLk bere jardueraren funtsezko zatia egin beharri dagokionez, honako hauek kontuan hartu behar dira: Arabako Foru Aldundiaren eta bertan partaide gisa integratutako udalen mendeko sozietate publikoa da; desgaitasuna duten Arabako pertsonentzat kalitatezko enplegu-aukerak sortzeko jomuga du, gizarte, ekonomia eta ingurumenari dagokienez jasagarriak diren enpleguak, hain zuzen, eta era horretan, pertsona horien gizarteratzea lortzeko xedea du, baita pertsonen, gizarteari edo industriari, oro har, zuzendutako edozein zerbitzu-jarduera sustatzekoa ere, desgaitasunen bat duten pertsonak enplegatzeko baliagarri izan daitezten eta enplegu-zerbitzu publikoekiko lankidetzat bultzatu dadin, pertsona horiek lan-arloan gaitze eta orientatze aldera, eta halaber, lankidetzat hori bultzatzea enplegarritasun zaila duten kolektiboek enplegua ematen dien lan-bitartekotzari dagokionez ere, bai enplegu babestuaren esparruan, bai enplegu arruntaren arloan.

Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko Legearen 86. artikulua eskatzen du egiaztatzea berezko bitartekoak badituela bere helburu sozialarekin bat datorren jarduerasektorean prestazioak egiteko baliabide nahikoak eta egokiak. Ildo horretan, INDESA 2010 SLren xedea da arropa zuria garbitu, josi eta birjartzeko zerbitzua ematea. Honako hauen berezko bitarteko instrumentaltzat eta zerbitzu teknikotzat hartzen da enpresa hori: Arabako Foru Aldundia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta hala erabakitzen duten udalerrietako tokiko administrazioa, Estatuko Administrazio Orokorrean eta autonomia-erkidegoen berezko bitartekoen eta zerbitzu teknikoen botere esleitzaila instrumentaltzat jotzen direnekin lotutako erakunde, organizazio eta entitateak eta haren mendeko botere esleitzailak.

A.4 KONTRATU TXIKIAK

Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako kontratu txikiak aztertzeetik honako zenbateko eta ez-betetze hauek ondorioztatu dira:

Euroak milakotan

KONTZEPTUA	GASTUA		K. TXIKIA		AZTERTUA		EZ-BETETZEA	
	GUZTIRA	ZENBATEKOA	%	ZENBATEKOA	%	ZENBATEKOA	%	
Sendagaiak	292.397	21.989	% 7,5	21.989	% 100	19.061	% 86,7	
Gainerako produktuak	310.159	64.262	% 20,8	64.262	% 100	53.843	% 83,8	



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

1.- Sendagaiak

- *Kontratu txiki bidez sendagaiak erosteari dagokionez, azpimarratzekoa da kontratu txikien zenbatekoa murriztu izanaren ondorioz izan duen bilakaera positiboa, 2012an 72,1 milioi eurorena izatetik, 2018an 22 milioi eurorena izatera aldatu baita.*

ALEGAZIOA

Horren harira, aldez aurreko ohartarazpen hauek egin behar dira:

1. Kontrol Ekonomikoko Bulegoak 21.989 mila euro aztertu ditu, zuzeneko eskaeratzat jotzen dituenak. Sendagaien eskaera zuzenen guztizko zenbateko horri dagokionez, Osakidetzak 19.061 mila euroko ezarritako muga gainditu du, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ez-betetze gisa kalifikatutako zenbatekoa, *publikotasun- eta lehia-printzipioak alde batera utzita, eta beraz, zatitu egin da kontratazioaren xedea.*

Alegazioa egin aurretik, aurretiko kontsiderazio batzuk aipatuko ditugu. Aurretiko kontsiderazio horiek 12.865 mila euroko zenbatekoari buruzkoak dira. Gehieneko ez-betetzetzat jotzen du Osakidetzak zenbateko hori, eta justifikatuta dago alegazioan bertan.

Aurretiko kontsiderazioak

1. 12.865 mila euroko guztizkotik kode nazionalaren arabera zenbatekoak 15.000 euro gainditzen dituen kasuen % 56 (7.161 mila euro) merkaturatze eskusiboko eta/edo izaera biologikoko eta ez-kimikoko sendagaien erosketari dagozkie.

Jarraian, izaera horrek eragindako printzipio aktiboen zerrenda dago zehaztuta:



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Merkaturatze eskusiboko eta/edo izaera biologikoko printzipio aktiboak edo printzipio aktiboen elkarketak	Intzidentzia (eurotan)
ÁCIDO AMINOLEVULINICO	15.411
ÁCIDO DIATRIZOICO	16.000
ACIDO OBETICOLICO	47.827
ALBÚMINA	407.108
ALECTINIB	122.276
ATEZOLIZUMAB	440.293
AVELUMAB	24.000
BELATACEPT	16.160
CANAKINUMAB	119.556
CARMUSTINA	403.809
CLADRIBINA	21.268
DEXAMETASONA	15.823
EMTRICITABINA, TENOFOVIR ALAFENAMIDA, DARUNAVIR Y COBICISTAT	25.391
ENZALUTAMIDA	190.000
ENZIMAS	33.739
FIDAXOMICINA	34.688
FINGOLIMOD	29.600
FOSCARNET	15.503
HEPARINA	35.154
HIDROCORTISONA	68.544
IDURSULFASA	93.438
INMUNOGLOBULINAS HUMANAS NORMALES PARA ADM. EXTRAVASCULAR	151.687
INMUNOGLOBULINAS HUMANAS NORMALES PARA ADM. INTRAVASCULAR	2.345.393
MITOMICINA	46.200
NEUMOCOCO, ANTÍGENOS CONJUGADOS DE POLISACÁRIDOS PURIFICADOS	22.985
NIVOLUMAB	524.293
OSIMERTINIB	176.379
ÓXIDO NÍTRICO	41.925
PALBOCICLIB	262.883
PAPILOMAVIRUS HUMANO TIPOS 6, 11, 16 Y 18	15.392
PEGFILGRASTIM	22.500
PONATINIB	41.472
POSACONAZOL	259.740
RIBOCICLIB	24.143
SAPROPTERIN	284.832
SELEXIPAG	115.454
SOFOSBUVIR Y VELPATASVIR	23.125
SUGAMMADEX	539.728
TEDUGLUTIDA	49.295
TOPOTECÁN	18.098
VENETOCLAX	19.495
GUZTIRA	7.160.606



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Esklusibotasunak esan nahi du sendagai batek hornitzaile bakarra duela eta, beraz, sendagaiak patologia jakin bat tratatzen duen hornitzaile bakar horri eskatu zaizkiola; halakoetan, ezinezkoa da lehia-printzipioa urratzea. Nabarmendu behar dugu hornitzaile bakarra dagoela, Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioak ezarritako prezio batekin. Gogoan izan behar dugu Espainian sendagaien prezioak ez direla askeak eta aipatutako Ministerioak ezartzen dituela. Izan ere, Espainiako Sendagaien eta Produktu Sanitarioen Agentziak (aurrerantzean, AEMPS) sendagaiei buruzko *online* informazio-zentro bat (CIMA) du bere webgunean, eta bertan zehazten dira sendagai bakoitzaren merkaturatze-titularrak, eta, beraz, argibide horietarako hain funtsezkoa den inguruabar hori egiazta daiteke (<http://www.aemps.gob.es/cima/fichasTecnicas.do?metodo=detalleForm>).

Bestalde, sendagaiak biologikoak eta ez-kimikoak izateak konplexutasun handiagoa dakar bai sendagaiok erabiltzean bai haiei jarraipena egitean, eta horrek espedientearen izapidetzea baldintzatzen du. AEMPS agentziak berak ere sendagai horiek ordezkaezinak direla ezartzen du eta, 2009/04/24ko oharrean adierazten du, pazienteen osasuna babeste aldera, sendagai biologikoak ezingo direla ordeztu sendagaia emateko momentuan, sendagaia agindu duen medikuak ez badu berariaz horretarako baimena ematen. Gainera, konplexutasun tekniko hori dela-eta, sendagai biologikoak komertzializatzeko baimena Europako Sendagaien Agentziak (EMA) bakarrik eman dezake, eta ez agentzia nazionalak.

2. 2018an 12.865 mila euroko guztizkotik kode nazionalaren arabera zenbatekoak 15.000 euro gainditu zituen kasuei dagokienez, % 72 (9.236 mila euro) 2020ko maiatzaren 29an esparru-kontratua indarrean zuten printzipio aktiboko sendagaiei dagozkie. Horrenbestez, gaur egun zuzenketa-neurri egokiak hartu direla esan daiteke.

Printzipio aktiboak edo printzipio aktiboen elkarketak, 2020ko maiatzaren 29an kontratua indarrean zutenak	Intzidentzia 2018an (milioi eurotan)
ÁCIDO MICOFENÓLICO	112.745
ACIDO OBETICOLICO	47.827
ALBÚMINA	407.108
ALECTINIB	99.444
AMOXICILINA E INHIBIDORES DE LA ENZIMA	218.038
ATEZOLIZUMAB	440.293
AVELUMAB	24.000
CANAKINUMAB	68.681
CARMUSTINA	403.809
CASPOFUNGINA	40.390
CLADRIBINA	21.268
CLEVIDIPINO	100.733
DAPTOMICINA	16.231
EMTRICITABINA, TENOFOVIR DISOPROXILO Y EFAVIRENZ	651.346
ENZALUTAMIDA	190.000
ENZIMAS	33.739
FINGOLIMOD	29.600
HIDROCORTISONA	68.544
IDURSULFASA	93.438



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Printzipio aktiboak edo printzipio aktiboen elkarketak, 2020ko maiatzaren 29an kontratua indarrean zutenak	Intzidentzia 2018an (milioi eurotan)
IFOSFAMIDA	38.210
IMATINIB	22.683
INMUNOGLOBULINAS HUMANAS NORMALES PARA ADM. INTRAVASCUL	2.345.393
LAMIVUDINA	92.918
LAMIVUDINA Y ABACAVIR	16.444
MELFALÁN	54.400
MIGLUSTAT	234.702
MITOMICINA	46.200
NIVOLUMAB	524.293
OSIMERTINIB	176.379
PALBOCICLIB	262.883
PIPERACILINA E INHIBIDORES DE LA ENZIMA	885.861
POSACONAZOL	259.740
RITONAVIR	51.899
SAPROPTERIN	284.832
SELEXIPAG	115.454
SOFOSBUVIR Y VELPATASVIR	23.125
SUGAMMADEX	539.728
TADALAFILO	60.021
TEDUGLUTIDA	49.295
VALGANCICLOVIR	64.639
VENETOCLAX	19.495
GUZTIRA	9.235.829

3. Txostenean aipatzen diren farmako ia guztiak ospitalean erabiltzekoak dira; hau da, konplexutasun tekniko handiko sendagaiak dira, aproposak larri eta ezgaitzaileak izanik, diagnostikatzen oso zailak diren eta asistentzia-eskaria aurretiaz zehaztea ezinezko egiten duten patologietarako, eta, halaber, egokiak ere badirenak pazienteentzat eta gero kontsumitzeko. Orobat, oso garestiak dira.

Zerbitzu-erakundeek egiten duten erosketen kudeaketaren helburua asistentzia-premiak berehala asetzea da. Sendagaiak funtsezko hornigaiak dira asistentzia-zerbitzuek behar bezala funtziona dezaten; ezin zaio zerbitzua emateari utzi kontratazio-espeditentea prestatu eta lizitazioa egin bitartean; izan ere, konplexutasun tekniko handiko prozedurak dira eta espezifikotasun zehatzak dituzten merkatu farmazeutikoko kanpo-elementuen eraginpean daude. Konplexutasun horri erantsi behar diogu sendagaiak, oro har, hainbat modu farmazeutiko edo galenikotan eman ohi direla (konprimituak, kapsulak, disoluzioan, injektagarriak, etab.); sendagaien dosifikazioa, eszipientea, iraungitze-data eta egonkortasuna ez dela guztietan berbera eta erabiltzeko baldintza eta modu desberdinak daudela. Bestalde, hornitzaileek hainbat baldintza logistiko eskaintzen dituzte eta hori ere aztertu behar izaten da.

Ondorioz, kalitateko asistentzia sanitarioa bermatu ahal izateko, nahitaezkoa da espeditentek hasi aurretik egin beharko diren ekintzak zehaztea, kontrataziorako baldintza tekniko, ekonomiko eta logistiko egokienak zehaztu ahal izateko.

4. Kontuan hartu behar da, Osakidetzak kontratatzeko ahalegina egin arren, merkatuko inguruabar partikularrek behartzen dituztela zerbitzu-erakundeak zuzeneko erosketara jotzera, izan ere, sendagaiak funtsezko hornidurak dira eta horien hornikuntza ezin da eten pazienteak artatzeko premia klinikoaren ondorioz.

Inguruabar horietatik, honako hauek nabarmendu daitezke, besteak beste:

- a) kontratuaren bidez erosteko ezintasuna, kontratatutako sendagaien hornidura-gabezia absolutu eta jarraituak direla eta.
- b) kontratatutako sendagaien segurtasun-arazoak direla-eta kontratuz erosteko ezintasuna, pazientearen interesaren ondorioz sendagai horiek ezin direlako erabili eta berehalako alternatiba bat ematera behartzen duelako.
- c) kontratu bat formalizatzeko ezintasuna, hornitzaileak lizitaziora aurkezten ez direlako eta esleitu gabe geratzen delako.
- d) indarrean dauden kontratuak luzatzeko ezintasuna, hornitzaileak ez daudelako ados.
- e) kontratu baten ondorioak mantentzeko edo formalizatzeko zailtasuna, eskubideen lagapenengatik, nazionalitate ez-espainiarreko merkataritza-erakundeengatik, enpresen bat-egiteengatik edo jarduera-adarren lagapenengatik, etab.

Inguruabar horiek 3.599 mila eurori eragingo liekete, hau da, guztizkoaren (12.865 mila euro) % 26ri, hain zuzen ere, 15.000 eurotik gorako zenbatekoa izan duten kode nazionalak kontuan izanik.

AMOXICILINA E ACIDO CLAVULÁNICO	234.991,6
CASPOFUNGINA	40.390,0
INMUNOGLOBULINAS HUMANAS NORMALES PARA ADM. INTRAVASCULAR	2.345.393,0
LAMIVUDINA	92.917,9
MIGLUSTAT	234.701,9
PONATINIB	41.472,0
SAPROPTERIN	284.832,0
VALGANICICLOVIR	64.639,1
GUZTIRA	3.339.337,6

